

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Bizkaiko Garraio Partzuergoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del
Consortio de Transportes de Bizkaia**

2016





AURKIBIDEA

LABURDURAK	7
I. SARRERA	9
II. IRITZIA	11
II.1 Legeak betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia	12
III. BARNEKO KONTROL-SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK.....	13
III. 1 Bizkaiko Garraio Partzuergoa	13
III. 1.1 Lege-araubidea eta estatutuen erreforma	13
III. 1.2 Bilbo Metropoliko Trenari lotutako azpiegituren titulartasuna	14
III. 1.3 Aurrekontu eta kontabilitatea.....	14
III. 1.4 Langileak.....	15
III. 1.5 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa	16
III. 2 Metro Bilbao SA.....	16
III. 2.1 Langileak.....	16
III. 2.2 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa	17
III. 2.3 Beste alderdi batzuk	19
IV INBERTSIOEN PLANA, FINANTZA-PLANA, FINANTZA-EGOERA	20
IV. 1 Inbertsioen Plana eta Finantza-plana.....	20
IV. 2 Finantza-egoera	22
V. URTEKO KONTUAK	24
V. 1 Bizkaiko Garraio Partzuergoaren urteko kontuak	24
V. 2 Metro Bilbao SAren urteko kontuak.....	29
V. 3 Kontu bateratuak	31



ERANSKINAK	33
A. 1	Aplika daitekeen araudia 33
A. 2	Aurrekontua 34
A. 3	Langileen gastuak 35
A. 4	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa 36
A. 5	Inbertsio errealak eta ibilgetua 36
A. 6	Finantza-aktiboen eta finantza-ibilgetuaren bariazioa 38
A. 7	Diruzaintzaren kontua 38
A. 8	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk 39
A. 9	Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 39
A.10	Finantza-pasiboen, zorraren eta finantza-gastuen bariazioa 40
A.11	Aurrekontutik kanpoko eragiketak 42
A. 12	Aurrekontu-/ ondare-emaizaren berdinkatzea 43
A. 13	Kontratazioaren azterketa 44
A. 14	Metro Bilbao SA 45
A.14. 1	Ondare garbia 45
A.14. 2	Ibilgetua 46
A.14. 3	Epe luzeko hornidurak 46
A.14. 4	Zerbitzuak eta kudeaketako diru-sarrerak 47
A.14. 5	Langileen gastuak 47
A.14. 6	Kontratazioaren azterketa 49
ALEGAZIOAK	51
ABREVIATURAS	85
I. INTRODUCCIÓN	87
II. OPINIÓN	89
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad 89
II.2	Opinión sobre las Cuentas Anuales 90
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	91
III.1 Consorcio de Transportes de Bizkaia	91
III.1.1	Régimen legal y reforma estatutaria 91
III.1.2	Titularidad de las infraestructuras vinculadas al Ferrocarril Metropolitano de Bilbao 92
III.1.3	Presupuesto y contabilidad 92
III.1.4	Personal 93
III.1.5	Contratación de bienes y servicios 93



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 Metro Bilbao, S.A.	94
III.2.1 Personal	94
III.2.2 Contratación de bienes y servicios	95
III.2.3 Otros aspectos.....	97
IV PLAN DE INVERSIONES, PLAN FINANCIERO, SITUACIÓN FINANCIERA	98
IV.1 Plan de inversiones y Plan financiero	98
IV.2 Situación Financiera	100
V. CUENTAS ANUALES	102
V.1 Cuentas Anuales del Consorcio de Transportes de Bizkaia	102
V.2 Cuentas Anuales de Metro Bilbao, S.A.....	107
V.3 Cuentas consolidadas	109
ANEXOS	111
A.1 Normativa aplicable	111
A.2 Presupuesto	112
A.3 Gastos de personal	113
A.4 Compra de bienes corrientes y servicios.....	114
A.5 Inversiones reales e inmovilizado	114
A.6 Variación de activos financieros e inmovilizado financiero.....	116
A.7 Cuenta de tesorería	116
A.8 Tasas y otros ingresos	117
A.9 Ingresos por transferencias corrientes y de capital.....	117
A.10 Variación de pasivos financieros, deuda y gastos financieros.....	118
A.11 Operaciones extrapresupuestarias	120
A.12 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	121
A.13 Análisis de contratación	122
A.14 Metro Bilbao, S.A	123
A.14.1 Patrimonio Neto	123
A.14.2 Inmovilizado	124
A.14.3 Provisiones a largo plazo.....	124
A.14.4 Prestación de servicios e ingresos de gestión.....	125
A.14.5 Gastos de personal	125
A.14.6 Análisis de contratación	127
ALEGACIONES	129

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 26a
Vitoria-Gasteiz 26 de abril de 2018





LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BGP	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
BMT	Bilbo Metropoliko Trena.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala.
EIB	Europako Inbertsio Bakua.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
ET-FV	Eusko Trenbideak /Ferrocarriles Vascos SA.
ETS	Euskal Trenbide Sarea.
HAZPSEL	31/2007 Legea, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan kontratatzeko prozedurei buruzkoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
MBSA	Metro Bilbao SA.
PROTRANS	Operadore ekonomikoak sailkatzeko sistema, 31/2007 energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreet prozedurei buruzkoa) aurreikusitakoaren babesean.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.



I. SARRERA

HKEEk, otsailaren 5eko 1/1988 Legean ezarritakoarekin eta lan-egitarauan ezarritakoarekin bat etorritz, 2016 ekitaldiari dagokion Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

HKEEk eginiko BGPren kontu orokorraren azken fiskalizazioa 2009 eta 2010 ekitaldiei dagokie.

BGPren kontu orokorra BGP toki-erakundearen kontuek, Metro Bilbao SA sozietate anonimoaren urteko kontuek (sozietatearen Batzorde Nagusiak onetsitakoak; akziodun bakarra BGP da) eta urteko kontu bateratuek osatzen dute.

Fiskalizazioak alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Legezkoak: aurrekontu-esparruetan, zorrak eta eragiketa finantzarioak, langileak, obren kontratazioa, erosketak eta zerbitzuak, eta zuzenbide publikoko diru-sarrereri buruzko araudia.
- Kontabilitatekoak: aztertu da Kontu Orokorra aplikagarriak diren kontabilitateko printzipioekin bat etorritz egin den. BGPren kontuen kontabilitateko esparru garrantzitsuenak aztertzeke, kanpoko auditoretza-enpresa batek adostutako prozeduren txostena egin du, eta MBSA sozietate publikoko urteko kontuak enpresa berak eginiko auditoretza finantzarioaren xede izan dira.
- Egoeraren finantza-analisia 2016 ekitaldia ixtean, bai eta Finantza Planarena ere, etorkizuneko inbertsioak bete ahal izateko.
- Lanaren zabalak ez du barne hartzen gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, hautemandako akatsak “Barneko kontrol sistemari eta kudeaketa-prozedurei buruzko oharrak” epigrafean zehazten dira.

BGP abenduaren 30eko 44/1975 Legearen bidez sortu zen, berezko izaera juridikoa duen eta partzuergoko erakundeekiko independentea den toki-erakunde gisa. 2016ko abenduaren 31an, hau da erakunde horien parte-hartzea: Eusko Jaurlaritza (% 50), Bizkaiko Foru Aldundia (% 25) eta eraginpeko udal hauek: Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Etxebarri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao (% 25).

Hau du helburu soziala: “Bilbo Metropoliko Trenaren azpiegituraren obretako finantzaketan parte hartzea, horiek hartuz exekutatu direnean, eta horri dagozkion gainegiturazko eta ekipamendu orokorreko proiektuak eta obrak gauzatzea, bat etorritz 44/1975 Legean ezarritakoarekin” eta “trenbide horrek eman behar duen garraio publikoko zerbitzua kudeatzea, kudeaketa sistema zuzenaren bidez, Partzuergoaren kapitalarekin sozietate pribatua eratuz (Metro Bilbao SA), eta bat etorritz Lege beraren bosgarren artikuluan xedatutakoarekin.

1986tik BGPren finantzaketa EJren eta BFaren artean egiten da (bakoitzak % 50), eta azken horrek partzuergoko udalen finantzaketa bere gain hartzen du.



MBSA sozietatea 1993ko otsailaren 18an sortu zen eta bere jardura nagusia BMTren kudeaketa egitea da. 1. linea 1995eko azaroaren 11n inauguratu zen. 2016ko abenduaren 31n, 1. linea (Basauri-Plentzia) eta 2. linea (Basauri-Kabiezes) daude funtzionamenduan.

2015ean zehar, ETS zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (EJren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailera atxikita dago, eta berariaz sortu zen 6/2004 Legearen bidez) BMTren 1. eta 2. lineen exekuzio, jarraipen eta kontrolerako proiektu eta lanen ardura hartu zuen, sail horren agindu baten bitartez (605.000 euroan).

2017ko apirilaren 8an Metroaren 3. linea martxan jarri zen. Linea hori ETSk eraiki zuen eta EJK eta BFAk zuzenean finantzatu zuten (bakoitzak % 50). Orduan, BMTren zerbitzua MBSA ematen hasi zen 1. eta 2. lineetan, eta ET-FV (EJren titulartasuneko erakunde publikoa) 3. linean; hala ere, zerbitzu bakar gisa funtzionatzen zuen erabiltzaileentzat. Barik txartelaren edozein titulu edo erabilera osagarri gehitzeko eskuduntza BGPri dagokio bakar-bakarrik. BGPko Kontseilu Nagusiak, 2016ko apirilaren 19an eginiko bilkuran, BGP, MBSA eta ET-FVren arteko Hitzarmen Arautzailea onetsi zuen. Hitzarmen hori 2016ko apirilaren 26an sinatu zuten, haien artean garatu beharreko jarduketak definitzeko. Hitzarmenean ez dira ezartzen BGPk bere gain hartuko dituen obligazio eta konpromiso ekonomikoen zenbatekoak, ez eta horiek egingo diren jarduketetara eta aurrekontura zuzenean egozteko edo denboran banatzeko modua ere; behin zehaztuta eta definituta, onetsi eta kontratatu egingo dira dagokion BGPren Kontratazio Organoaren eskutik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Langileen gastuak

1. Langileen ordainsariak batez beste % 2 areagotu dira 2015. urteari dagokionez, 2016rako Aurrekontuen Lege Orokorraren 19. artikuluan ezarritako % 1a gaindituz.

METRO BILBAO SA SOZIJETATE PUBLIKOA

Langileen gastuak

2. 2016an eginiko 58 kontratazioetan (1 mugagabe, 38 bitarteko, 7 aldi baterako eta 12 errelebo-kontratu), MBSAk enpresa aditu batekin kontratatu du publizitatea eta egin beharreko proben garapena, eta hautagaien amaierako zerrenda bat jaso du. Ondoren, MBSAk prestakuntza-prozesuak eta aurrez aurreko elkarrizketak gauzatu ditu, behin betiko zerrenda bat eratuz, baina bakoitzari balorazio indibidualik eman gabe. Horrenbestez, ez da bermatzen berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen aplikazioa langileen kontratazioari dagokionez.
3. 2016an, MBSAk 15 langileren aldi baterako lan-kontratuak mugagabe egin ditu, MBSAren hitzarmen kolektiboan jasota dagoen barne-sustapeneko prozeduraren bitartez, eta beraz, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete gabe.

Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa (ikus A.14. 6)

4. Zerbitzuen 2 espedientetan (zehazki, 12 eta 13 zenbakikoak, 1,4 milioi euroan esleitutakoak) pleguetan ezarritako gehieneko exekuzio-epea gainditu da. 2016 ekitaldian kontraturik gabe erregistratutako gastua, esleipen berrira arte, 883.717 eurokoa da. Halaber, geltokietako ate eta atasken gaineko mantentze-lan prebentibo eta zuzentzailearen kontratua 2015eko maiatzaren 2an amaitu zen, eta 2016an kontraturik gabe erregistratutako gastua 95.276 eurokoa da.
5. BMTko geltokietako publizitate estatikoaren kontratua, 604.626 euroko diru-sarrera ekarri duena, 2016an exekutatu da azaroaren 15ean kontratu berria formalizatu arte, 2016ko urtarrilaren 2a muga-eguna luzaezina bazen ere.

Epaitegi honen iritziz, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan zehazten diren ez-betetzeengatik izan ezik, Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta Metro Bilbao SA sozietate publikoak nahiko ondo bete dute 2016 ekitaldian beren jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-araudia.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. BGPko aurrekontuaren likidazioan ez da erregistratu, ekitaldiko irabazi eta galeren kontua barne hartzen badu ere, 2,4 milioi euroko gastua, hainbat operadorearen abenduko titulu partzuerren baliozkotzeei dagozkienak (2017ko aurrekontuan erregistratu dira). Ondorioz, ekitaldiko aurrekontuaren emaitzan eta diruzaintzako soberakinean zenbateko hori murriztu behar da.
2. 2016ko abenduaren 31n, BGPk ez du ibilgetu materialaren ondasunen inbentario fisiko indibidualizatu eta eguneraturik. Hortaz, ezin da egiaztatu bere jardueran erabilitako ondasunen egiazkotasuna eta jabetza; eta ondorioz, ezta egun horretara arteko kontabilitate-erregistroa egokia den ere.
3. MBSA sozietateak bere jarduera gauzatzeko bere jabetzakoak ez diren ondasun jakin batzuk erabiltzen ditu (BGPrenak edo beste erakunde publiko batzuenak dira); eta horiek ez dira jaso egoera-balantzeko aktiboan. Horiek erabiltzeak ez dio sozietateari inolako kosturik ekartzen.

Halaber, sozietateak ez du kargurik jaso BMTren eraikuntzaren finantzaketari dagokionez, eta, estatutu sozialen arabera, bere kargura egin beharko litzateke.

Txosten honen datara arte, ezin izan da zehaztu, bidezkoa izatekotan, sozietateari egotzi ahal izango litzaiokeen zenbatekoa, arestian adierazitako kontzeptuengatik, ez eta jabetzaren forma juridikoari eta ondasun horiek erabiltzeko eskubideari buruz hartzen den azken erabakiak atxikitako urteko kontuetan izan dezakeen eragina ere.

Epaitegi honen iritziz, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenengatik izan ezik, BGPren eta MBSAren kontu orokorrek eta BGPren Finantza Egoera Bateratuek agerian uzten dute, alderdi garrantzitsu guztietan, 2016 aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen irudi fidela eta 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerarena. Eta horrez gain, baita egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzena eta eskudiruen fluxuena ere; hori guztia bat etorritz aplikagarria den informazio finantzarioaren arau-esparruarekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNEKO KONTROL-SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

Atal honetan zehazten dira bai jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten AKATSAK, bai kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGEOA

III.1.1 LEGE-ARAUBIDEA ETA ESTATUTUEN ERREFORMA

Abenduaren 30eko 44/1975 Legeak (BGP sortzekoa) toki-erakundeko bere izaera eta erakunde mota horiei aplikagarri zaien legeriarekiko atxikipena ezarri zuen. Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (horren bidez bat egiten dira Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean eta sektore publikoaren arrazionalizazioari eta administrazio-erreformarako beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legean eginiko lege-aldaketak) partzuergoak arautzen ditu 118. artikulutik 127. artikulura bitartean. Arestian adierazitako arau-aldaketek ezartzen dute partzuergo bakoitzaren estatutuek zehaztuko dutela zein administrazio publikotara atxikiko diren, araudi horretan ezarritako lehentasun-irizpideei jarraikiz. Horrez gain, partzuergo horiek atxikiko diren administrazioaren aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen menpe egongo dira.

40/2015 Legea indarrean sartu zen 2016ko urriaren 2an, eta urtebeteko (1) epea ezartzen du lege-erreforma egiteko eta estatutuak egokitzeko. Horretarako, azken xedapenetatik 17.ean xedatzen du epea iraungi arte sortze-legearen arabera arautuko direla. Hortaz, 2016an, BGP toki-erakundea zen, eta ez zen bere atxikipenaren arabera lege-araubidea aplikatu behar.

Hornitzaileen ordainketetako berankortasunari, egonkortasunari eta finantza-tutoretzari dagokionez, BGP Euskal Autonomia Erkidegora atxikita dago, eta hala jasotzen da Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailatza Orokorraren erakunde inbentarioan.

Txosten honen datara arte, epea iraungita dago 2017ko urriaren 2tik eta ez da sortze-legearen erreformarik egin eta, halaber, ez dira estatutuak aldatu. Eta horrenbestez, ez da zehaztu zein administrazioetara atxikita egongo den.

Partzuergoen araudiaren erregulazio berriak oinarrizko araudiaren izaera du, 40/2015 Legearen azken xedapenetatik 14.arekin bat etorritik; beraz, egokitze-legeria berria esparru horretan garatu beharko da. Ondorioz, BGPren Legearen erreforma, bai eta estatutuen egokitzapena ere, lehenbailehen egin behar dira.

Aldaketa garrantzitsuenek langileen kudeaketaren eta ordainsarien araudiari eragingo diete; horiek muga kuantitatibo eta kualitatiboak ezartzen dituzte, lege-erreforma egin eta estatutuak egokitu arte aintzat hartu beharrekoak. Zentzu horretan, BGPren lanpostu batzuetako osagarri espezifikorengatik ordainsariak beren gainetik dauden administrazioetako eta/edo beren jarduera finantzatzen dutenetako antzeko lanpostuei dagozkienak baino altuagoak dira. 2016ko urriaren 2tik indarrean dagoen 40/2015 Legearen 121. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, BGPren araubide juridikoa atxikitzen zaion



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

administrazio publikoarena izango da, eta ordainsariak ezingo dituzte inola ere administrazio publiko horretako lanpostu baliokideetakoak gainditu. Horrenbestez, ordainsariak atxikiko zaion administrazioko lanpostu baliokideetara egokitzeko aholkatzen da. Halaber, partzuergoen zerbitzurako langileak soilik parte hartzen duten administrazioetako funtzionarioak edo lan-kontratudunak izan ahalko dira.

III.1.2 BILBO METROPOLIKO TRENARI LOTUTAKO AZPIEGITUREN TITULARTASUNA

BGP sortzeko abenduaren 30eko 44/1975 Legeak bere 4.3 artikuluan ezartzen du BMTren sarearen azpiegitura-obrak, onetsitako proiektu bakoitzari dagozkionak, amaitzen doazen heinean, horiek emango zaizkiola BGPri. Hark trenbidea, material mugikorra, elektrifikazioa, osagarriak eta zerbitzua ustiatzeko beharrezkoak diren gainerako elementuak emateko betebeharra izango du, horretarako dagozkion proiektuak idatzita.

BGPren Estatutuen 46. artikulua ezartzen du azpiegitura-obrak amaitzen diren neurrian, horiek eman beharko direla. Harrera-aktak behar bezala baimendutako bi erakundeetako funtzionarioek sinatuko dituzte.

Txosten honen igorpen-datara arte, ez da BMTri atxikitako ondasunen titulartasun juridikoa eskualdatu; hala ere, BGPren eskura jarri dira eta horren ibilgetuaren zati dira (ikus A.5 eranskina).

III.1.3 AURREKONTUA

Konpromiso-kredituak

- Likidazioaren konpromiso-kredituen egoerak ez ditu barne hartzen funtzionamendu-gastuen kapituluan baimendutako konpromiso-kredituak, 2,7 milioi euroko zenbatekoan. Horietatik 1,3 milioi esleituta daude 2016ko abenduaren 31n.

Aurrekontu-aldaketak

- Funtzionamendu-gastuen kapituluan txertatutako 1,8 milioi euroetatik, soilik % 33,5 exekutatu dira. Aipatzekoa da 1,6 milioi euro txertatu direla BARIK txartela saltzeko, jasotzeko, bertatik jasotako dirua biltzeko, lagundutako kargarako, txartelak biltzeko eta banatzeko komertzializazio-sare bat ezartzeko eta ustiatzeko kontratua dela eta. Aintzat hartuta txertatutakoaren eta espediente honetarako aurrekontu arruntaren exekuzioa, 1,4 milioi euro txertatu dira, 2016an gauzatu gabe, 10/2003 Foru Arauaren 32. artikuluan ezarritakoaren kontra.

Aurrekontu arruntaren exekuzioa

Hasiera batean 2016rako inbertsio errealean aurrekontuan sartutako 32,9 milioi euroetatik, soilik 9,8 milioi eurori dagozkion obligazioak aitortu dira; hau da, % 29,6. Aurreikusitako



proiektuak behar bezala aztertu eta aurrekontuan sartu behar dira, urteko kontuak beharren eta aurreikusitako jarduketara errealen arabera kuantifikatuz.

III.1.4 LANGILEAK

Aurrekontu-plantilla

- Aurrekontu-plantillak ez du jasotzen 2016an ordaindutako produktibitate-osagarria, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren kontra.
- 2010etik 28 funtzionario-lanpostu dituen plantilla sartzen da aurrekontuan, onetsitako lanpostu zerrendarekin bat etorritik, baina 2016ko abenduaren 31ra arte bete gabeko 7 lanpostu ere sartzen dira. 2011n BMTren 2. linea martxan jartzeko beharrezko lanak amaitu ziren eta 2004an ETS sortu zen, BMTren 3. linea eraikitzeko. Horrez gain, 2012an Barik kontaktu gabeko txartela sartu zen Bizkaiko garraio publikoan, eta ondoren, txartelen modalitate berriak. Horrek guztiak aldaketa nabarmenak eragin ditu BGPren jardueran. Gomendagarria litzateke egungo benetako beharrak aztertzea, epe ertainean, eta aurrekontu-plantilla horietara egokitzea.

Ordainsariak

- BGPk kalte-ordain bat ordaindu du erretiro aurreratuari aldez aurretik uko egiteagatik, 54.171 euroan, 2014ko martxoaren 31n onetsitako giza baliabideen plan estrategikoan aurreikusitakoaren babesean. Hala ere, 7. artikuluan aurreikusitakoa ez da bete; horren bidez, planaren exekuzioari aplikagarri zaizkion aurrekontu-erabilgarritasunetara mugatzen dira jarduketak, eta 2016an eta partida horretarako ez zegoen zenbatekorik esleituta.
- 2010eko txostenean adierazi genuen bezala, BGPko 2 funtzionarioek, BGPra sartu zirenetik (duela 22 eta 14 urte, hurrenez hurren) administrazio publikoen menpeko merkataritza-sozietateetan aldez aurretik emandako zerbitzuetan oinarritutako hiru urtekoak jasotzen dituzte, sozietate horiek administrazio instituzionalaren barnean egon ez arren, 70/1978 Legearen 1.2 artikulua ondo erretarako eta Auzitegi Gorenaren Jurisprudentziaren arabera. 2016an ordaindutako zenbatekoa 4.151 euro dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.5 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kontratazio-espeditentek

Aztertutako espeditenteen berrikuspenean alderdi hauek hauteman dira:

- BGPk, aztertutako 3 luzapenetan (10, 11. eta 12. espeditentek), ez die esleipendunei eskatzen kontratatzeke gaitasuna egiaztatzeke (SPKLTBren 60.1.d artikulua).
- Sopela-Plentzia zatiaren komunikazioen proiektuaren espeditentean (3. espeditentea), 538.758 euroan esleitutakoan, adituen batzordeak bi teknikari sartu ditu, eta horiek proposatu dute kontratatzeke beharra (SPKLTBren 150.2 artikulua).
- 3,9 milioi euroan esleitutako bi horniduretan (3. eta 5. espeditentek), ez dira urtero kontuak egokitu (APKLEOko 96. artikulua) eta horrek konpromiso-kredituak areagotzea eta xedapen faseko kredituak murriztea ekarriko luke.

III.2 METRO BILBAO SA

III.2.1 LANGILEAK

Atal honetan alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Zuzendaritzak 2016ko helburuengatik finkatu ezin den ordainsari aldakorraren (302.793 euro) banaketarako ezarritako helburuak, maila guztietarako, trenen puntualtasuna eta erabiltzaileek BMTko zerbitzuaren kalitatea hautematea dira. Helburu horiek BMTren ohiko jardueraren xede orokorrak dira eta ez daude helburu indibidualekin lotuta.

Gainera, hitzarmenetik kanpoko mailetarako ez dira helburu indibidualak ezarri, "Soldata-egitura berria" dokumentuan jasotzen den bezalaxe. Buruzagitzei ordaindutako zenbatekoa 31.428 eurokoa da.

- Ez dira agiri bidez jaso Zuzendari Kudeatzaileak, Kontseiluak eskuordetuta, hartutako erabakiak, langileen kudeaketari buruzkoak. Ulertzen dugu organo eskudunak hartutako erabakiak, sektore publikoko sozietateetan funtzionamendu orokorreko printzipioarekin bat etorritu eta gutxieneko segurtasun juridiko gisa, behar bezala dokumentatu, arrazoitu eta oinarritu behar direla, beharrezkoak diren pribatutasunerako eta kudeaketa onerako neurriak hartuz.



III.2.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Aztertutako espedienteen berrikuspenean alderdi orokor hauek hauteman dira:

- Kontratueta eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguetan aurreikusten da kontratuaren ondoriozko galdera, liskar eta desadostasun guztiak ebazteko Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Elkargoaren arbitrajera jo behar dela. SPKLTBren 50. artikuluan arbitrajera jotzeko aukera ezartzen den arren, aholkatzen dugu sektore publikoko interesak bermatze aldera, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko, HAZPSELren 108. artikuluan ezartzen den moduan, edo jurisdikzio zibilera (SPKLTBren 21.2 artikulua).
- PROTRANS sailkapen-sistemaren arabera izapidetutako espedienteetarako, HAZPSELren arabera, aholkatzen da teknikari eskudunaren ziurtagiria eskuratzea, kontratuaren xedearen eta eskatutako epigrafeen arteko korrelazioa egiaztatzeko.
- Balio-judizioen inguruko irizpideei dagokien dokumentazioa irekitzea eta baloratzea aholkatzen da, formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak baloratu aurretik. Halaber, jendaurrean ireki behar dira, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioak betetze aldera.
- Esleipenaren jakinarazpenean ez da zehazten lizitatzailleen aldetik erreklamazioak aurkezteko aukera (HAZPSELren 101. artikulua eta hurrengoak, eta 39/2015 Legearen 40.2 artikulua).
- Kontratuaren dokumentazioan ez dago jasota estimatutako balioa (HAZPSELren 17. artikulua eta SPKLTBren 88. artikulua), dagokion kontratazio-prozedura ezartzeko beharrezko atalaseak zehazten dituena.
- 13 espedientetan (2016an esleitutakoak, 2,9 milioi euroko zenbatekoan), prozedura murriztura jo da, PROTRANSen bidezko deialdiarekin, eta estimatutako balioak ez ditu gainditu HAZPSELko atalaseak. Lege horren aplikazioa eta, beraz, PROTRANS sailkapen-sistema hori, honen menpe daude: esleituko diren kontratuen estimatutako balioak bere 16. artikuluan ezarritako atalaseak gainditu behar ditu (hornidura eta zerbitzuen kontratueta 418.000 euro, BEZik gabe).

PROTRANSen bidezko lizitazioa egin ezin den prozedura murriztueta, beharrezkoa da publizitatea egitea, SPKLTBren 191. artikuluekin bat etorritik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratazio-espedienteak (ikus A.14.6)

Kontratazioko 18 espedienteak aztertu ondoren (guztira, 24,8 milioi euroan esleitutakoak), alderdi hauek nabarmentzen dira:

- Bederatzi espedientek, 11,3 milioi euroan esleitutakoak (8., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16. eta 17. espedienteak), ez dute betetzen aurreikusitako aldaketetarako eskatzen diren baldintzak eta/edo mugak modu argi, zehatz eta zalantzagabea zehazteko betekizuna (SPKLTBren 106. artikulua).
- 2 espedientetan, 736.660 euroan esleitutakoak (6. eta 7. espedienteak), prezio-irizpidea prezio txikiaren araberrako proportziotik abiarazten den formula batekin zenbatzen da; hortaz, puntuak bermatzen ditu eskaintza aurkezteagatik, horrek tasa berdintzen duenean ere. Hori dela eta, irizpide hori indargabetuta geratzen da eta balio-judizioen bidezko irizpideen bitartez baloratu beharreko portzentaje-proportzioan eragiten du (SPKLTBren 150. artikulua). Horrez gain, trenbidearen mantentze-lanen espedientean, 3,3 milioi euroan esleitutakoa (1. espedientea), prezioaren irizpidea puntuatzeko oinarri gisa lizitazioaren prezioaren % 80 ezartzen duen formula bat erabiltzen da, puntuazio bera emanaz oinarri hori baino txikiagoak diren eskaintza guztiei; hortaz, zailagoa da ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea (SPKLTBren 1. artikulua).
- Prozedura negoziatu bidez 5,2 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan (2., 5., 9., 10. eta 11. espedienteak) ez dira baldintzen pleguak jasotzen (HAZPSELren 32. artikulua); eta 4,9 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (12, 14. eta 16. espedienteak), ez da pleguetan jasotzen eskaintza ekonomikoa baloratzeko formula.
- 11 milioi euroan esleitutako 8 espedientetan (2., 5., 6., 7., 9., 10., 12. eta 15. espedienteak), fidantza kontratua sinatu eta exekuzio-epea hasi ondoren eratu da.
- 3,2 milioi euroan esleitutako 4 espedientetan (5, 9., 10. eta 11. espedienteak) ez da esleipena EBAOn argitaratu, eta 500-550 trakzio-ekipoen ordezkioak hornitzeko espediente batean (5. espedientea; 1,2 milioi euroan esleitutakoa), ez da esleipendunaren dokumentazioa jasotzen.
- Zaintza-espedientearen luzapenean (15. espedientea; 4,9 milioi euroan esleituta), ez dira jasotzen luzapenaren baldintzei edo zerga-obligazioen eta obligazio sozialen betetze-mailari buruzko txostenak.
- 7 espedientetan (7., 9., 12., 13., 14., 16. eta 17. espedienteak; 6,5 milioi euroan esleitutakoak), pleguetan isilbidezko luzapenak egiteko aukera jasotzen da (SPKLTBren 23.2 artikulua). Jada luzatutako espedienteek (9., 12., 13., 14 eta 16) ez dituzte jasotzen luzapenaren onespren-akordioak.
- TUetan martxa eraginkorra ezartzeko espedientean (11. espedientea; 695.889 euroan esleituta), ez da exekuzio-epearen aldaketa onetsi.
- 4 espedientetan (5., 9., 10. eta 11. espedienteak; 3,2 milioi euroan esleituak), memoriak justifikatzen dute zerbitzu horiek aplikazioen esleipendunak bakarrik egin ditzakeela. Aplikazioak mantentze-lanekin batera eskuratzeko/berritzeko lizitazioa egin ahal izateko aukera aztertzeke aholkatzen dugu.



- BMTko geltokietako publizitate estatikoko kontratua, 2006an esleitutakoa (17. espedientea), 2013ko azaroaren 26an aldatu zen, formatu berriak gehitzeko; horiek lizitatzailaren jabetzakoak dira eta kanona % 5era murriztu zen formatu digitaleko publizitaterako, eta % 40 binilorako. Hori guztia azterlanik egin gabe, aplikatzeko kanon berria negoziatu gabe eta MBSAren berariazko onespenerik gabe.
- Publizitate-espazioak ustiatzeko espedientean, fakturazio garbiaren % 68,5eko sarrerako kanonaren esleipenarekin (18. espedientea), ez da jasotzen kontratua esleitzeko aintzat hartzen diren irizpideen, lizitazio-prezioaren eta diru-fluxuen justifikazioa; ISO ziurtagiriak edukitzea baloratzen da, esleipenerako irizpide gisa, kaudimenezkoa denean. Prezioen berrikusketak ez du aurrez zehaztutako sistemari ezartzen eta fidantzaren zenbatekoa baxua da kontratuaren zenbatekoarekin alderatuta.

Administrazio-kontrataziorako espedienterik gabeko gastua

- 2016 ekitaldian zehar, antzeko beste ondasun eta zerbitzu batzuk eskuratu dira, guztira 1,7 milioi euroan. Gure ustez hori aztertu beharko litzateke, homologatu daitezkeen hornidurak eta aurreikusi ezin diren zerbitzuak identifikatu direlako eta, hortaz, horien kontratazioa prozedura bakarrean egin daitekeelako (ikus A.14.6).

III.2.3 BESTE ALDERDI BATZUK

- BMTko geltokietako MBSAren publizitate estatikoaren kontratuan ezartzen da kontratistak hilero gutxieneko informazioa eman behar duela, benetako publizitate-jarduera kontrolatzeko. Horrez gain, kotizazio sozialen egiaztagiriak eta zergen ordainketa eta fidantzaren eguneratzea ere aurkeztu behar ditu, eta alderdi horiek ez dira bete. Gainera, kontratuan ezarrita dago kontratatutako benetako jarduera eta fakturazioa baliozkotzeko kanpoko auditoria bat eskatzeko aukera dagoela, eta kontratuak iraun dituen 10 urteetan ez da halakorik egin.

IV. INBERTSIOEN PLANA, FINANTZA-PLANA ETA FINANTZA-EGOERA

IV.1 INBERTSIOEN PLANA ETA FINANTZA-PLANA

Inbertsioen plana

BGPk urtero onesten ditu inbertsioen plan bat eta horri heldu ahal izateko finantza-plan bat. Hala gainegiturazko eta BMTren 1. eta 2. lineen ekipamendu orokorreko proiektuak eta obrak (BGPren eskumenekoak dira) nola BMTren azpiegiturazko obren kontratazioa eta zuzendaritza (EJren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumenekoak dira), BGPren aurrekonturako karguarekin exekututzen dira.

2016ko abenduaren 19an Inbertsioen Plan berria eta finantza-plana onartu ziren, jarduketa bereziak 145,1 milioi euroko metatutako zenbatekora aldatuz, bai eta 2017tik 2020ra bitarteko aldirako egiteke dauden 33,2 milioi euroko inbertsio batzuk ere.

Hau da metatutako inbertsioen planaren xehetasuna, 2016ko abendukoa:

INBERTSIOEN PLANA, 2017-2020		Mila euro
		2016ko ABENDUA
I FASEA San Inazio-Urbinaga eta Bolueta-Etxebarri.....		268.514
II FASEA Urbinaga-Portugalete eta Etxebarri-Ariz		177.014
III. FASEA Portugalete-Kabiezes eta Ariz-Basauri (euro arruntak)..		422.437
III FASEA Portugalete-Kabiezes eta Ariz-Basauri (eguneratzea) (*)		411
2. LINEA GUZTIRA		868.376
JARDUKETA BEREZIAK (euro arruntak).....		143.223
JARDUKETA BEREZIAK (eguneratzea) (*).....		1.901
JARDUKETA BEREZIAK GUZTIRA		145.124
INBERTSIOEN PLANA GUZTIRA (euro arruntak).....		1.011.188
INBERTSIOEN PLANA GUZTIRA (eguneratzea) (*).....		2.312
INBERTSIOEN PLANA GUZTIRA, EGUNERATUTA		1.013.500

(*) Inbertsioen Planek etorkizuneko ekitaldietako inbertsioen eguneratze-indizeak aplikatzen dituzte (% 3koa 2017rako; % 6,09koa 2018rako; % 9,27koa 2019rako; eta % 12,55koa 2020rako).

Egiteke daude 2. lineako jarduketak (9,3 milioi euroan) eta jarduketa bereziak (33,2 milioi euroan); horien artean, hauek nabarmentzen dira: Ibarbengoako aparkalekua (5,6 milioi euro), dresina eta bidaiarientzako ateak egokitzeko material mugikorrekiko inbertsioak (2,6 milioi euro), aginte-postu zentralizatua (2 milioi euro), trenbideen berrikuntza-lanak (1,8 milioi euro), multixartelaren sistemak ezartzea (1,1 milioi euro) eta Urdulizko geltokia lurperatzeko lanak (596.000 euro).

Finantza-plana

BGPren finantza-plana urtero berrikusten da. 2016ko abenduaren 19an Kontseilu Nagusiak onetsitakoak 2027. urtera arteko aurreikuspena jasotzen du.

BGP sortzeko legeak parte-hartze hau ezartzen du finantzazioari dagokionez: EJ (% 50), BFA (% 25) eta Partzuergoko udalak (% 25); hala ere, BFAk eta EJk sinatutako hitzarmenen arabera, praktikan kide bakoitzari % 50eko betebeharrak finantzarioa dagokio.

Hau da finantza-planaren baliabideak, titulu partzuerren gastua eta diru-sarrerak aintzat hartu gabe, horiek eragin orokor neutroa baitute, ez eta beste diru-sarrerak eta gastu txikiak ere:

- EJren eta BFAREN ekarpenak: ekarpen parekideak ezarri dira; 2016 eta 2017rako 38,6 milioi eurokoak, 2018rako 43 milioi eurokoak, 2019rako 44 milioi eurokoak, eta 2020 eta 2021erako 45 milioi eurokoak. Gainerako aldirian, 2027ra arte, zenbatekoak ekitaldi bakoitzean aldatu egiten dira.
- Zorrak: EJk eta BFAk eginiko ekarpenak ez dira nahikoa BGPren jardueratik datozen obligazioak finantzatzeko; hortaz, zorduntzera jo behar da. Zorduntzea planifikatu den azken ekitaldia 2018. urtekoa da, zorduntze horren ondorioak finantza-planaren amaierara arte luzatuz.

2016rako, Kontseilu Nagusiak baimendu zuen, 2016ko ekainaren 21eko bilkuran, mailegu-eragiketa bat formalizatzea, 2016ko azken hiruhilekoan, eta ordaintzea, gehienez 26,4 milioi euroko zenbatekoan. Horietatik 11 milioi euro formalizatu eta xedatu dira.

Hau da finantza-planaren egoera 2016ko abenduaren 31n, titulu partzuerrak eta beste partida txiki batzuk aintzat hartu gabe:

FINANTZA-PLANA 2016ko ABENDUAREN 31n	Mila euro		
	2027ra ARTEKO PLAN OSOA	2016-12-31ra ARTEKO PLANA	2017-2027 PLANA
DIRU-SARRERAK			
EJren ekarpena	1.304.690	925.850	378.840
BFAREN ekarpena	1.304.690	925.850	378.840
Zorduntzea	1.055.230	1.031.730	23.500
ITURRIAK GUZTIRA	3.664.610	2.883.430	781.180
1. linea	614.200	614.200	-
2. linea	868.376	859.160	9.216
Jarduketa bereziak	156.690	111.910	44.780
Zorren amortizazioa	1.055.230	608.850	446.380
Zorren interesak	519.410	450.710	68.700
MBSAREN transferentziak	380.640	223.140	157.500
BGPren ustiapen-gastuak	156.700	101.370	55.330
HELBURUAK GUZTIRA	3.751.246	2.969.340	781.906



2017tik aurrera, EJren eta BFAREN ekarpenak hauek finantzatzera bideratuko dira: finantzakarga, inbertsioen planean adierazitako jarduera bereziak, MBSAREN mantentze-lanak (urtean 18 milioi euro) eta BGPren kudeaketa-gastuak (urtean 5 milioi euro).

IV.2 FINANTZA-EGOERA

Hauek dira BGPren aurrekontu-kontuetatik kentzen diren finantza-magnitude nagusiak:

	Mila euro	
	2016	2015
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.....	88.942	88.476
Transferentzia arruntak.....	59.828	55.050
Ondarezo diru-sarrerak.....	8	34
Langileen gastuak.....	(1.581)	(1.689)
Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak.....	(91.243)	(89.168)
Finantza-gastuak.....	(10.647)	(12.388)
Transferentzia arruntak.....	(7)	(6)
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA	45.300	40.309
Kapitaleko diru-laguntzengatiko sarrerak.....	17.536	15.920
Inbertsio errealak.....	(12.526)	(14.027)
Inbertsio errealen besterentzea.....	358	1
Emandako kapitaleko diru-laguntzak.....	-	-
KAPITAL-ERAGIKETEN EMAITZA	5.368	1.894
Finantza-aktiboen bariazioarengatiko diru-sarreraren gastu garbiak.....	(10.974)	(9.768)
Finantza-pasiboaren bariazioarengatiko diru-sarreraren gastu garbiak.....	(29.414)	(30.027)
FINANTZAKETA-ERAGIKETEN EMAITZA	(40.388)	(39.795)
AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	10.280	2.408
ITXITAKO EKITALDIEN EMAITZA	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	10.280	2.408
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	28.656	18.376
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako Diruzaintzako soberakina.....	(917)	(917)
DIRUZAINZAKO SOBERAKIN DOITU GARBIA, LIKIDOA	27.739	17.459
ZORDUNTZEA EKITALDIAREN AMAIERAN	422.883	452.297

Bai eragiketa arruntzen emaitzan bai kapitaleko eragiketen emaitzan sortutako bariazioak partzuergoko erakundeengandik jasotzen diren sarrerekin dute lotura; hau da, EJk eta BFAk eginiko ekarpenekin, eragiketa horiek finantzatu ahal izateko.

Nagusiki, jasotako baliabideak finantzaketa-eragiketetara bideratu dira, inbertsioen exekuzioa 12,5 milioi eurokoa bakarrik delarik.

Finantzaketa-eragiketen emaitzan, nagusiki hau jasotzen da finantza-aktiboen bariazio gisa: MBSAREN funtsetara eginiko 11 milioi euroko ekarpena; eta hau finantza-pasiboaren bariazio gisa: 11 milioi euroko mailegu-xedapenak eta 40,4 milioi euroko amortizazioak. Ondorioz aurrekontu-emaitza baxuagoa izan da, 29,4 milioi eurokoa.



2016 ekitaldian Diruzaintzako Soberakina areagotzea transferentzia arrunten bidezko diru-sarreraren igoerarekin eta ekitaldiko inbertsioen gaineko kapital-transferentzien soberakinarekin lotuta dago.

ONDORIOA

BGP EJren eta BFaren menpe dago gastu arrunteko eta inbertsioko bere jarduera finantzatzeko, zorduntzearen finantza-karga ere aintzat hartuta. Finantza-planak 2027ra arteko ekarpenak aurreikusten ditu; urte horretan zorra amortizatzen amaituko dela aurreikusten da.

Inbertsioen planean (2016 ekitaldiaren amaieran indarrean zegoen eta 2016ko abenduaren 19an onetsi zen) aurreikusten da BGPren inbertsioen planean sartutako jarduketa bereziak 2020an amaituko direla.

2017tik aurrera, ez dago apenas exekutatzeko inbertsiorik, eta EJren eta BFaren ekarpenen helburua finantza-karga, inbertsioen planean adierazitako jarduera bereziak, MBSaren mantentze-lanak (urtean 18 milioi euro) eta BGPren kudeaketa-gastuak (urtean 5 milioi euro) finantzatzea da.

Hurrengo urteetarako ez da aurrekontuan sartu BGPren inbertsio nabarmenik, eta eginkizun nagusia izango da Barik txartelaren elkarreragingarritasuna ezartzea eta garatzea, horretarako laguntza teknikoak azpikotratatuz.

Bestalde, ETSk, EJren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailera atxikita dagoenak eta berariaz 6/2004 Legearen bidez sortu zenak, trenen eskuduntza du EAEn. Horrez gain, hura sortu zuen legearen 2. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, BMTko linea berrien eraikuntza bere gain hartzen du, bai eta haren ondasun guztien kudeaketa ere, hots, BGP titular gisa duten trenen azpiegitura osatzen duten ondasunena. Lineen eraikuntza eta ondasunen kudeaketa egiteko baldintzak EJK, BGPk eta ETSk sinatuko duten hitzarmenean arautuko dira.

BMTren 3. linearen kudeaketa ET-FV sozietate publikoak gauzatzen du (% 100ean EAEn den sozietatea). Era berean, 2015ean, erakunde horrek BMTren 1. eta 2. lineen proiektu eta obren exekuzioaren, jarraipenaren eta kontrolaren ardura hartu zuen, EJren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren agindu baten bidez, 605.000 euroan.

Bestetik, 2017an Bizkaiko Mugikortasuneko Agintaritzak sortu da, EJren, BFaren, BGPren eta Bilboko Udalaren ordezkariarekin, Bizkiko garraio publikoa antolatzen saiatzeko, hurrengo hamarkadan lurraldeko garraio-sarea optimizatzeke plan estrategiko bat sortuta.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 BGPren URTEKO KONTUAK

V.1.1 BGPren AURREKONTU-KONTUAK

A. AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA

Mila euro

DIRU-SARRERAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOBRAZKEKE	
		HASIERAKOA	ALDAT.	BEHIN BET.	LIKIDATUAK	KOBR.	DAUDENAK
3.- Tasak eta bestelako diru-sarrerak .	A.8	96.110	-	96.110	88.942	81.937	7.005
4.- Transferentzia arruntak.....	A.9	59.828	-	59.828	59.828	59.828	-
5.- Ondarezko diru-sarrerak		60	-	60	8	8	-
6.- Inbertsioen besterentzeak.....		-	-	-	358	358	-
7.- Kapital-transferentziak.....	A.9	17.513	314	17.827	17.536	17.534	2
8.- Finantza-aktiboen bariazioa		112	6.141	6.253	26	26	-
9.- Finantza-pasiboen bariazioa.....	A.10	26.380	-	26.380	11.000	11.000	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		200.003	6.455	206.458	177.698	170.691	7.007

GASTUAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			SORTUTAKO		ORDAINTZEKE
		HASIERAKOA	ALDAT.	BEHIN BET.	OBLIG.	ORDAINK.	DAUDENAK
1.- Langileen gastuak.....	A.3	1.962	1	1.963	1.581	1.560	21
2.- Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosk .	A.4	101.412	1.833	103.245	91.243	85.884	5.359
3.- Finantza-gastuak	A.10	12.111	-	12.111	10.647	8.601	2.046
4.- Transferentzia arruntak.....		12	-	12	7	7	-
5.- Kreditu globala		71	-	71	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	A.5	32.893	4.621	37.514	12.526	10.377	2.149
8.- Finantza-aktiboen bariazioa	A.6	11.112	-	11.112	11.000	9.350	1.650
9.- Finantza-pasiboen aldakuntza.....	A.10	40.430	-	40.430	40.414	40.200	214
GASTUAK GUZTIRA		200.003	6.455	206.458	167.418	155.979	11.439

B. EKITALDI ITXIETAKO HONDARREN LIKIDAZIOA

Mila euro

	ORDAINTZEKOA	KOBRANTZ./	ORDAINTZ.
	HASIERAN	BALIOGAB.	AMAIERAN
Zordunak	5.007	-	5.007
Hartzekodunak	11.462	-	11.462



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTU-EMAITZA		Mila euro
Likidatutako eskubideak.....		177.698
Aitortutako obligazioak.....		(167.418)
EKITALDI HONETAKO EMAITZA		10.280
Itxitako ekitaldietako bariazioa		-
ITXITAKO EKITALDIETAKO BARIAZIOA		-
AURREKONTU-EMAITZA		10.280
AURREKONTU-EMAITZARI EGINIKO DOIKUNTZAK		
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako obligazioak		3.078
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		13.358

D. DIRUZAINZAKO SOBERAKINA		Eranskina	Mila euro
Ekitaldi honetako kobratu gabeko eskubideak			7.007
Aurrekontutik kanpoko eragiketen kobratu gabeko eskubideak	A.11		750
Ekitaldi honetako ordaindu gabeko obligazioak			(11.439)
Aurrekontutik kanpoko eragiketen ordaindu gabeko obligazioak	A.11		(828)
Diruzaintzako funts likidoak ekitaldiaren amaieran	A.7		33.166
DIRUZAINZAKO GERAKINA 2016-12-31n			28.656
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako Diruzaintzako soberakina			(917)
DIRUZAINZAKO SOBERAKIN DOITU GARBIA, LIKIDOA, 2016-12-31n			27.739

E. ZORRAREN EGOERA		Mila euro
Maileguak eta kredituak	A.10	422.883
ZOR BIZIA 2016-12-31n		422.883

(*) Datos obtenidos de los registros contables del CTB

F. KONPROMISO-KREDITUAK		Mila euro			
	2017	2018	2019/20	GUZTIRA	
Inbertsio errealak	12.009	4.099	73	16.181	
Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak (*).....	1.939	829	-	2.768	
GUZTIRA	13.948	4.928	73	18.949	

(*) BGPren kontabilitate-erregistroetatik eskuratutako datuak



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.1.2 BGPren ONDARE-KONTUAK

A. EGOERA-BALANTZEAK 2016ko eta 2015eko abenduaren 31n				Mila euro			
AKTIBOA	ERANSKINA	2016	2015(*)	PASIBOA	ERANSKINA	2016	2015(*)
IBILGETUA		820.528	853.008	ONDARE GARBIA		411.641	416.426
Ukiezina.....	A.5	1.788	1.362	Ondarea		24.080	24.080
Materiala	A.5	786.963	826.934	Itxitako ekitaldietako emaitzak		392.346	403.290
Materiala, bidean.....	A.5	13.735	7.457	Ekitaldiko emaitza.....		7.257	(10.944)
Finantzarioa	A.6	18.042	17.255	Balio-aldaketengatiko doikuntzak ..	A.10	(12.161)	-
				Emaitzari egotz dakizkiokeen jaso gab. diru-lag.		119	-
				PASIBO EZ-ARRUNTA		395.915	411.883
				Epe luzerako zorrak	A.10	395.915	411.883
AKTIBO ARRUNTA		41.172	30.934	PASIBO ARRUNTA		54.144	55.633
Kudeaketa-eragiketetako zordunak		7.007	5.007	Kreditu-erakundeekiko zorrak.....	A.10	39.344	40.414
Kobratu beharreko beste kontu batzuk		868	768	Epe laburrerako beste zor batzuk.....		4.221	12
Administrazio publikoak.....		54	284	Kudeaketa-eragiketetako hartzek.....	A.12	8.127	11.982
Periodifikatzeagatiko doikuntzak		77	78	Ordaindu beharreko beste kontu batzuk		2.246	3.000
Aldi baterako finantza-inb.		-	4	Erakunde publiko hartzekodunak.....		206	225
Diruzaintza	A.7	33.166	24.793				
AKTIBOA GUZTIRA		861.700	883.942	PASIBOA GUZTIRA		861.700	883.942

B. 2016 eta 2015 ekitaldietako GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAK		Mila euro	
	2016	2015 (*)	
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	77.245	70.000	
Negozio-zifraren zenbateko garbia	88.640	86.870	
Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk.....	231	2.260	
KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA	166.116	159.130	
Langileen gastuak.....	(1.584)	(1.693)	
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	-	(2.183)	
Hornidurak	(87.035)	(85.610)	
Beste ustiapen-gastu batzuk	(3.999)	(4.281)	
Ibilgetuaren amortizazioa	(45.233)	(51.976)	
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(137.851)	(145.743)	
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	28.265	13.387	
Balioaren beherakada eta ibilgetu ez-finantzarioa besterentzearen emaitza	(164)	(12.034)	
Arruntak ez diren beste partida batzuk	7	59	
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA	28.108	1.412	
Diru-sarrera finantzarioak	8	34	
Finantza-gastuak	(10.647)	(12.390)	
Finantza-aktibo eta -pasiboen balioaren beherakada, bajak eta besterentzeak	(10.212)	-	
FINANTZA-EMAITZA	(20.851)	(12.356)	
EKITALDIKO EMAITZA	7.257	(10.944)	

(*) Alderatzeko. Ez da nahitaezkoa, 139/2015 Dekretua indarrean sartu delako.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AITORTUTAKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA		Mila euro	
	2016	2015 (*)	
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	7.257	-	
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK.....			
Gastuen kontabilitate-estaldurak	(12.161)	-	
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.....	124	-	
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(12.037)	-	
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK			
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.....	(5)	-	
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(5)	-	
AITORTUTAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(4.785)	-	

(*) Alderatzeko. Ez da nahitaezkoa, 139/2015 Dekretua indarrean sartu delako.

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA		Mila euro			
	ONDAREA	ONDAREA	DOIKUNTZAK (BALIOA)	JASOTAKO DIRU-LAG., DOH. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
2015 EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	24.080	392.346	-		416.426
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	7.257	(12.161)	119	(4.785)
2016 EKITALDIAREN AMAIERAKO SALDOA	24.080	399.603	(12.161)	119	411.641



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRU-FLUXUAREN EGOERA	Mila euro	
	2016	2015(*)
KUDEAKETA-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK	61.438	-
A) KOBRANTZAK	183.545	-
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	77.362	-
Zerbitzuak ematea	86.944	-
Interesak eta dibidenduak	8	-
Beste kobrantza batzuk	19.231	-
B) ORDAINKETAK	122.107	-
Langileen gastuak	1.589	-
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	7	-
Beste kudeaketa-gastu batzuk	90.716	-
Ordaindutako interesak	10.680	-
Beste ordainketa batzuk	19.115	-
INBERTSIO-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK	(21.865)	-
C) KOBRANTZAK	384	-
Inbertsio errealen salmenta	358	-
Finantza-aktiboen salmenta	26	-
D) ORDAINKETAK	22.251	-
Inbertsio errealen erosketa	11.431	-
Finantza-aktiboen erosketa	10.820	-
FINANTZAKETA-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK	(31.200)	-
G) FINANTZA-PASIBOAK JAULKITZEAGATIKO KOBRANTZAK	11.000	-
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	11.000	-
H) FINANTZA-PASIBOAK ITZULTZEAGATIKO ORDAINKETAK	40.200	-
Jasotako maileguak	40.200	-
ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN AREAG./GUTXITZE GARB.	8.373	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	(24.793)	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	33.166	-

(*) Alderatzeko. Ez da nahitaezkoa, 139/2015 Dekretua indarrean sartu delako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 MBSAren URTEKO KONTUAK

A. EGOERA-BALANTZEAK 2016ko eta 2015eko abenduaren 31n

Mila euro

AKTIBOA	ERANSKINA	2016	2015	PASIBOA	ERANSKINA	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA		14.037	14.576	ONDARE GARBIA	A.14.1	16.392	15.784
Ibilgetu ukiezina.....	A.14.2	145	144	Kapital eskrituratua.....		27.598	25.578
Ibilgetu materiala.....	A.14.2	13.143	13.653	Jaulkipen-prima.....		85.036	76.236
Epe luzerako finantza-inbertsioak.....		749	779	Erreserbak.....		12.716	12.716
				Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		(98.746)	(86.893)
				Ekitaldiko emaitza.....		(10.212)	(11.853)
				PASIBO EZ-ARRUNTA		1.135	1.084
				Epe luzerako hornidurak.....	A.14.3	1.135	1.084
AKTIBO ARRUNTA		17.946	17.292	PASIBO ARRUNTA		14.456	15.000
Izakinak.....		2.149	1.918	Epe laburrerako zorrak.....		635	1.116
Merkataritza-zordunak eta beste kontu batzuk		1.003	1.033	Enpresa talde eta elkart. zorrak.....		1.535	774
Epe laburrerako finantza-inbertsioak..		9.002	10.008	Merkataritza-hartzekodunak eta beste batz.		10.827	11.661
Sopela-Plentziako tarteko komunikazio proiektuko espedientearen aditu batzordean kontratatzekeo beharra proposatzen duten bi teknikariek parte hartzeari dagokionez, adierazi behar da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak debekatzen duela adituen batzordeko kideak egotea kontratua proposatzen duen organoan. 2009/817 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duenaren, 28. artikuluan zehazten da inongo kasutan ezingo dutela egon kontratua sinatzea proposatzen duen organoan. Egia da partzuergoak, egitura txikia duenez, ez duela haren organoetara atxikitako funtzionarioirik (Kontseilu Nagusia, Batzorde Exekutiboa, Kudeaketako Zuzendaritza). Kontseilu Nagusiaren eskuduntzako kontratuak izapidetzeko proposamena –halakoa da aztertzen ari garena– zuzendari nagusiari dagokio, berezko zerbitzu baten –Kudeaketako Zuzendaritzaren– organo titularrari; adituen batzorderako izendatutako teknikariak ez dira zerbitzu horren parte.

Horrez gain, arau berak xedatzen duenez, *"posible denean, aipatutako batzordeko kideek ministerioko saileko edo organismo kontratatzaileko langile izan beharko dute. 3. Batzordeko kide guztiek izango dute prestakuntza profesional egokia, balorazioaren xede den gaiaren araberrakoa"*, eta kontuan hartu behar da Partzuergoak ez duela nahikoa teknikari kualifikatu posible izateko entitatearen kontu arruntei buruzko informazioa ematen duten horiek adituen batzordean parte ez hartzea.

Azkenik, adierazi behar da horniketa kontratuaren xede proiektua ez zutela teknikari horiek idatzi, baizik eta kanpoko ingeniari batzuek, zegokion espediente izapidetu ondoren kontratatutakoek. Horrenbestez, uste dugu horrek indartu egiten duela adituen batzordeko kideen inpartzialtasun betekizuna.

Urterokoen birbanaketari buruz, aipatu behar da horrelako ekintzan oso ohikoak direla BGPn. HKEEk aipatu duen kasua isolatua da, hala ere, Kontu Epaitegiak egindako oharrak aintzat hartu eta baloratu egingo dira esparru horretan izapideak hobetzen jarraitzeko.

IV.2 FINANTZA EGOERA

ONDORIOA

2017tik aurrera, ez dago ia inbertsiorik betetzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren eta BFAren ekarpenak bideratu dira honako hauek finantzatzera: finantza zama, inbertsio planean aipatutako jarduera bereziak, Metro Bilbao SA, urteko 18 milioi eurorekin, eta BGPren kudeaketa gastuak, urteko 5 milioi eurorekin.

Aurrekontuan ez da sartu BGPrenzako inbertsio garrantzitsurik hurrengo urteetarako, eta zeregin nagusia izango da Barik txartelaren elkarrengaitasuna eta hura garatzea laguntza teknikoak azpikontratatzuz.

ALEGAZIOA

BGPren 2016ko aurrekontua 200.002.884,18 eurokoa izan zen (206.589.760,49, Metro Bilbao SArekin bateratuta). BGPren 2017ko aurrekontua 204.235.800,00 eurokoa izan zen (217.279.218,00, Metro Bilbao SArekin bateratuta); horietako 24.485.572,29 euroak inbertsioetarako izan zituen BGPk. 2018an, aurrekontua 225.178.359,95 eurokoa da (229.223.676,95, Metroa Bilbao SArekin bateratuta); horietatik BGPk 27.462.459,95 euroak ditu inbertsioetarako. Gainera, BGPk 2017an konpromiso kredituak ditu, fase ezberdinetan dauden eta datozen urteei dagozkien **16.865.134,03 euroko saldo biziko** inbertsioenak (hori guztia 21 langilek kudeatuta).

2018rako aurreikusita dauden 27.462.459,95 euroko inbertsioen artean garrantzitsuenak honako hauek dira, oso funtsezkoak direlako Bilbao Metropoli Trenbiderako (BMT) eta Barik txartelerako:

	Euroak
Azpiegituren berritzea	823.187,87
BMTko aparkalekuak	5.865.000,00
Urbilagako aldageltokia	3.458.000,00
Urdulizko lurperatzea.....	1.000.000,00
Material Mugikorra	1.451.742,42
Subzentralak.....	432.205,50
Trenbidea	2.175.101,62
Seinaleztapena ATP/ATO.....	365.748,87
Komunikazio sistema	1.404.012,78
PMC sistemak	1.767.221,47
Seinaleak	262.580,05
Gainegitura proiektuak	3.154.224,54
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak BMT	366.033,79
BMTren makinak, instalazioak eta tresnak.....	1.050.000,00
BMTren informazio prozesurako tresnak.....	500.000,00
Bariken laguntza teknikoa.....	441.000,00
Gainegitura eta azpiegituren proiektuen lan zuzendaritza	600.000,00
Barik informatika aplikazioak	328.000,00
Ibilgetu ezmateriala	450.000,00

...

Hala ere, kontuan hartu behar da administrazio eremuan inbertsioen kopurua ez dela beti garrantzitsuena, BGPtik hiritarrei ematen zaien zerbitzua oso nabarmentzekoa da: BGPk bultzatu eta zuzentzen ditu Barik tituluen ekintza guztiak, Bilbao Bizkaia Cardekin ekintza turistikoak, aparkaleku disuasorioak, eta abar. 2016ko datuak oso adierazgarriak dira:

- Urte horretan 119.834.354 bidaia, Barik txartelarekin.

*-*97.303.737,00 euroko aurrekontua 44000 programan, 2016ko (garraioaren administrazioa).

*-*96.809.593,05 euroko erretegiak urtean Barik tituluetan, sistemaren 9 operadoreetan (Metro Bilbao, Eusko Tren, Eusko Tran, Feve, Renfe, Bilbobus, Bizkiabus, Artxandako Funikularra, Larreinetako Funikularra) eta kanpoko sareko



sistema desberdinetan (salmentarako komertzializazio-sarea, dirubilketa, lagundutako erreforma, biltegiak eta banaketa, Kutxazainak, NFC eta web).

*.1.516.940 Barik txartelen parkea (herrialdeko biztanleen kopurua baino gehiago).

Eremu honetan BGPk zuzendu eta bultzatu du MUGI eta BAT txarteekin interoperabilitatea, izan ere, GOVARI eta BGPri esker, praktikan, EAE osoan txartel bakar bat dago bidaiari egiteko.

Hirugarren Linea indarrean hasi zenetik, Metro Zerbitzuaren bidaiari-neurketak burutzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egiteko gakoak da BGP, izan ere linea hori sozietate desberdin biek ustiatzen dute (Metro Bilbao, S.A. eta Eusko Trenbideak, S.A.). Era horretan operadore bakoitzaren sarrera eta ordainketen kitapenentarako datuak biltzen dira.

BGPren Bezeroentzako Arreta Bulego (BAB) guztiak zerbitzu komunak eskaintzen dituzte Bizkaiko garraio sistema osorako, kontuan hartu gabe operatzailearen jabea edo erakundearen eremua eta beraien arteko desberdintasunik egin gabe. Horrela, BAB berean biltzen dira Eusko Trenbideak SAREN, Bizkaibusen, Bilbobusen eta Metro Bilbao SAREN langileak, denak formakuntza berarekin, eduki berdina eskaintza, etab. Hori hortzen da BGPk haiekiko etengabeko koordinazioa egiten duelako, ekintzak, kudeaketak, formakuntza, erantzuteko era, eta abar bateratuta.

Gainera, BGPk bere sozietatearen bidez hobetu, mantenua egin eta eskaintzen du Bizkaiko populazio-gehien duten herrietako garraio nagusia, 2016an 87,1 milioi bidaiari izan zituen.

Deigarria da datu horiek konparatzea EAEko garraio arloko lurralde mailako beste partzuergo batekin; bertan, 4.000 euro ingururen kudeaketaz arduratzen da proportzionalki askoz handiagoa den langile kopuru bat (5 langile).

IV.2 FINANTZA EGOERA

ONDORIOA

Bestalde, 2017an Bizkaiko Mugikortasunerako Agintaritzak sortu zen; bertan zeuden Eusko Jaurjaritzako, BFAko, BGPko eta Bilboko Udaleko ordezkariak, Bizkaiko garraio publikoa antolatzen saiatzeko, hurrengo hamarkadan lurraldeko garraio sarea optimizatzeko plan estrategiko baten bidez.

ALEGAZIOA

Horri dagokionez, azpimarratu behar da Bizkaiko Mugikortasunerako Agintaritzak deritzona, zeinaren parte baita BGP, haren parte diren erakundearen arteko elkarlan organo bat dela, hura sortu zuen 2017ko otsailaren 27ko hitzarmenaren lehen klausulak xedatzen duenez. Ez du nortasun juridikorik, eta haren funtzioak ez dira exekutiboak: mugikortasun politikak partekatzea, hausnartzea, eztabaidatzea, garraioaren inguruko proposamenak egitea, eta abar (bigarren klausula). BGPri dagokio hitzarmen horren jarraipena egiteko eta betetzeko beharrezko baliabideak jartzea (hamargarren klausula).



Horrenbestez, ondorioztatu behar da organo horrek ez dituela BGPren eskuduntzak eta ahalmenak murrizten: areagotu egiten ditu, eta eskuduntza, funtzio eta garapen berriak ematen dizkio, antolaketa maila handikoak, eta lurralde osoari arlo ekonomiko eta sozialean eragingo diotenak; Eusko Autonomia Erkidegoko beste eragileekin koordinatzea ere eragiten dio. Hortaz, ez ditu inola ere mugatzen BGPren eskuduntzak eta ahalmenak.

TXOSTENAREN ONDORIOEKIKO ALEGAZIOAK

LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN INGURUKO 1. IRITZIA

METRO BILBAO, S.A. SOZIJETATE PUBLIKOA

Pertsonal-gastuak.

2. Iritziaren aurrean (banakako baloraziorik ez aldi baterako 58 kontratazioetan)

ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi du aldi baterako 58 kontratazioen hautapen-prozesuan ez dela jaso hautagaitzen banakako baloraziorik egin denik; hortaz, jotzen du ez dagoela guztiz bermatuta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla.

Iritzi hori ezeztatze aldera, batere ados ez gaudelako, jarraian deskribatzen dugu Metro Bilbao, SAn (MB) burututako hautapen-prozesua:

- Lizitazio-pleguetatik bertatik, MBk funtsezko baldintza bat ezartzen die langileak hautatzeko prozesuen kanpo-kudeaketa esleitzen dien enpresei, hain zuzen ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzeko eta bermatzeko eskatzen die. Horrenbestez, printzipio horiek edozein hautapen-prozesuren hasieratik nabarmentzen dira.
- Kanpoko hautapen-prozesuen bidez langileak kontratatzeke deialdia publikoki egiten da; izan ere, hautapen-prozesuaren iragarkiak argitaratzen dira hiru egunkari desberdinetan.
- Kanpoko enpresak, ebaluazio-froga desberdinak dituen prozesua garatu ostean, MBri helarazten dio aurretik hautatutako hautagaitzen zerrenda, MBk mediku-azterketen eta elkarrizketa pertsonalen prozesua abiaraz dezan MBko barne-langileriarekin.
- Zehaztutako froga guztiak gairiditu dituzten eta MBri aurkeztutako 2016ko kanpoko prozesuaren hautagaitza baliiodunen zerrendan 2 talde daude eta kanpoko hautapen-enpresak lehentasunezko hautagaitzak identifikatzen ditu, ebaluazioaren eta eskatutako profilen arabera, hain zuzen ere, MBren beharrak asetzeko.
- Hautagaitza baliiodun eta optimoen zerrenda aurkeztu denetik, MBk mediku-azterketak eta elkarrizketa pertsonalak planifikatzeko eta garatzeko prozesu bat abiarazten du zerrenda horretako hautagaitzekin; hala, beharrezko kontratazio-premien arabera ematen zaie hitzordua hautagaitzei.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Elkarrizketa pertsonalei dagokienez, Metro Bilbaoko Pertsonen Garapenerako Buruak (Hautapena), bere prestakuntzaren, esperientziaren eta erantzukizunaren babespean, txantilo batean oinarritutako elkarrizketa-egitura bat zehaztu du, non banaka balioztatzen diren txantiloiko eremu guztiak.

Beraz, badago hautagaitza guztien banakako balorazioa. Hautapen-prozesu horrek antolakuntzaren barruko profil desberdinei eman behar die erantzuna, hau da, lantegiko eremu teknikitik bezeroen arretaraino. Horregatik, hautagaitzak kontratazioaren xede den lanpostuaren profilaren eta betekizun espezifikoen arabera antolatzen dira.

MB dagozkien elkarrizketa pertsonala eta mediku-azterketa gairak dituzten hautagaitza guztiak jartzen da harremanetan telefonoz; hortaz, guztiak daukate prozesuan jarraitzeko eta MBko langileriaren kide izateko aukera, berariaz eta idatziz prozesuan ez jarraitzeko eskatzen duten hautagaitzek izan ezik, alegia.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak igorritako txostenean adierazitakoa espedientearen benetan jasotakoarekin bat ez etorri arren, gogorarazi behar da zein den MBk aintzat hartzen duen araubidea lanpostua lortzeko kudeaketan eta lanpostuaren sustapenean. MBk, azaldu den bezala, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio horiek bermatzen dituen enplegua lortzeko sistema bat eratu du, hain zuzen ere, deialdi publikoen, froga objektiboen eta banakako balorazioen bidez; sistema horretan, lanpostua lortzeak lotura zuzena dauka ebaluazioaren emaitzarekin.

Hala eta guztiz ere, MB merkataritza-sozietate publiko bat da eta, edonola ere, aipatutako printzipio gidariak betetzen ditu, baina ez ditu herri administrazioan langileriaren kontratazioa eraentzen duten prozedurak eta formalitateak bete behar. Ematen du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak administrazio batekin parekatzen duela MB igorritako txostenean, hain zuzen ere, lanpostuak hornitzeko prozeduren eta sistemen ondorioetarako. Horri dagokionez, adierazi behar da MBk printzipio gidariak soilik bete behar dituela eta ez prozedura zehatzak.

Are gehiago, Auzitegi Gorenak gai horren inguruan egindako azkenengo adierazpenetan langileriaren kontratazioaren malgutasun handiagoa nabarmentzen du eta kapital pribatuko edozein merkataritza-sozietateren kontratazioarekin ere parekatu egiten du. Hala, bereziki adierazgarria da **Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 6ko kapital publikoko merkataritza-sozietate batean langileak kontratatzeari buruzko rec 229/2015 Epaia:**

“C) También dentro del sector público empresarial están las «sociedades mercantiles estatales» a que se refiere el art. 2.1.e) LGP.

Estas sociedades, «aunque forman parte del sector público empresarial estatal (art. 3.2 b) LGP), no son Administraciones públicas (art. 2.2 de la Ley 30/1992), de manera que "se regirán íntegramente, cualquiera que sea su forma jurídica, por el ordenamiento jurídico privado, salvo en las materias en que les sea de aplicación la normativa presupuestaria, contable, patrimonial, de control financiero y de contratación"» (DA 12 LOFAGE y art. 166 Ley 33/2003, de 3/Noviembre)....



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

....A partir de cuanto antecede es claro que el recurso yerra al construir la premisa mayor de su razonamiento central. Los presupuestos sobre los que debe abordarse el examen sobre ilegalidad del convenio colectivo son los siguientes:

La empresa TRAGSA no es subsumible en un concepto amplio de "Administración" a la hora de definir las normas que presiden el acceso a sus empleos. TRAGSA no es una entidad pública empresarial, sino una sociedad mercantil estatal.

La "contratación" que ha de sujetarse a normas propias del sector público no es la de personal asalariado sino la de obras o servicios.

Las normas del EBEP son inaplicables a las sociedades mercantiles de titularidad pública.

Salvo en temas patrimoniales y relacionados con ellos, a esta mercantil se le aplican las mismas normas que a cualquier otra.

Doctrina constitucional y de esta Sala conducen a la misma conclusión: no cabe extender a TRAGSA las normas sobre empleado público."

Horrela, Auzitegi Gorenak ondorioztatzen du merkataritza-sozietate publikoetan langileen kontratazioa eraendu behar duten arauak beste edozein sozietate pribatutan betetzen diren berberak izan behar direla.

Ildo beretik, MBren kontratazio-politikak ez ditu inola ere agortzen Auzitegi Gorenaren egungo interpretazioak eskaintzen dizkion malgutasun juridikoko aukerak. Halaber, MBk ez du enplegurako sarbidea merkataritza-sozietate pribatu baten malgutasun-irizpide bereberekin arautzen. MBk berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetan sinesten du eta horiek bermatzen ditu; horretarako, printzipio horiek betetzen direla zaintzen duen sistema arautu bat dauka. Hala, beste gauza bat da herri administrazioari soilik aplikatzen zaizkion formalitateak eta arauketak ere bete behar izatea, Auzitegi Gorenak argitasun osoz jo duen bezala.

5. Iritziaren aurrean (kontratuak egikaritzeko gehieneko epea gainditzea)

ALEGAZIOA

Pleguetan ezarritako egikaritzeko gehieneko epea gainditu egin da 12. eta 13. zerbitzu-espeditanteetan.

- Igogailuen eta eskaileren mantentze-lanak (12): Kontratua luzatu zen Preskripzio Teknikoen Pleguak egitean atzeratu zirelako. Hori gertatu zen aldaketa nabarmenak egin zirelako preskripzio teknikoek pleguen funtsean, instalazioak nahiko zaharrak baitziren. Hori dela-eta, modernizatzeko operazioak gehitu behar izan ziren, ordura arte kontratatutako mantentze-lanetan jasota ez zeudenak. Horretarako, fabrikatzaileek mantentze-lanen inguruko dokumentazioa eta energia-eraginkortasunaren eremuko



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

modernizazioen proiektu bat aurkeztearen zain egon ginen; hala, hori Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bidez kudeatu da.

- Publizitatean eta marketinean laguntza teknikoa emateko zerbitzua (13): 2016ko abenduaren 19an luzatzen da. Luzapen hori egin behar izan da 3. Linea gehitu delako Metro Sarera. Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA (Euskotren) sozietateak ustiatuko du linea hori; hala, bi ustiaketa horien arteko elkarrekintzak zehazteke zeuden kontratuaren xede den eremuan. Kontratuaren xedea eta irismena argi zehazteko, baterako ekintza-plan bat ezarri behar zen MBren eta Euskotrenen artean eta hori ezin izan zen amaitu 2017ko apirilera arte. Behin hori eginda, plegua sortu zen eta lizitazio bat atera zen, 2017ko uztailean argitaratu zena.
- Ateen eta uhateen mantentze-lanak: 2015eko abenduan argitaratutako lizitazioa hutsik geratu zen urtarrilean. Aurretiazko lizitazioaren emaitza kontuan hartuta, eta beharrezkoa zenez gure beharretara eta eskaintzaileen aukeretara egokitutako plegu bat idaztea, ezin izan zen beste bat deitu 2016ko uztailean arte; hala, 2016ko irailean esleitu zen. Bitartean, kontratua uzten zuen enpresak jarraitu zuen mantentze-lanak burutzen, baldintza ekonomiko berberetan, hain zuzen.

6. Puntuaren aurrean (kontratua egikaritzea hori amaitu ostean)

ALEGAZIOA

Metro Bilbaoren publizitate estatikoko espedientean, pleguetan ezarritako egikaritzeko gehieneko epea gainditu egin da:

- Aldaketa nabarmenak egin ziren preskripzio teknikoen pleguen funtsean, euskarri digital gehiago eta agerpen berriko bestelako euskarri batzuk gehitu zirelako. Hala eta guztiz ere, kontratu hori ez denez kontratuen legearen menpeko kontratu bat, luzapen bat egin zen, pleguak hobeto idazteko eta zehazteko. Horrez gain, adierazi beharra dago lizitazioaren esleipena atzeratu egin zela Kontratuen inguruko Errekurtsuen Administrazio Organoaren aurrean erreklamazio bat jarri zelako eta horrek lizitazio-prozedura luzatu egin zuen.

III. EPIGRAFEA BARNE-KONTROLEKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREN INGURUKO GOGOETAK

III.2. METRO BILBAO, SA

III.2.1 LANGILERIA

Kontsolidagarria ez den ordainsari aldakorraren sortzapenerako ezarritako helburuen inguruko gogoetaren aurrean



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Kontsolidagarria ez den ordainsari aldakorra banatzeko helburuei dagokienez, hauxe adierazi behar da:

- Hala, 302.793 euroko zenbatekoa 740 langileren artean banatu da, inolako ordainsari aldakorrik kobratu ez duten zuzendaritzako kideak kanpo utzita. Zenbateko horren barruan sartzen dira Unitate Buruzagitza guztien artean banatutako 31.428 euro, hurrengo puntuan aipatzen direnak.
- Helburuei dagokienez, adierazitako soldata-egitura berriak berriaz gomendatzen du gaur egun ezarrita dauden helburuetatik (enpresaren helburu orokorrak) pixkanaka ezartzeko, hain zuzen ere, banantze handiagoa lortzeko. Hedapen hori abiarazteko, zehazki, banakako helburuetara arte, bilakaera-garapen graduala behar da; hortaz, oraindik ere, ezartzeko prozesuan dago.

Kudeaketako zuzendaritzak langileak kudeatzearen inguruan hartutako erabakien konstantzia dokumentalaren aurrean

ALEGAZIOA

Kudeaketako zuzendaritzak langileak kudeatzearen inguruan hartutako erabakien konstantzia dokumentalari dagokionez, adierazi behar da ezin dela esan konstantzia dokumentalik ez dagoela. Egia da enpresako lan-harremanak arautzen dituzten erabakien ebidentzia dokumentala dagoela. Izan ere, kudeaketako zuzendaritzak langileen kudeaketaren inguruko enpresa-politikaren gida-elementu nagusiak sinatzen edo onartzen ditu formalki. Zentzu horretan:

- hitzarmeneko langileen ordainsari-politika arautzen duen 2016-2018 hitzarmen berria sinatu du;
- hitzarmenetik kanpoko langileentzako soldata-egitura berria onetsi du, baita agintea duten langileen eta arduradun teknikoen Garapen-osagarria (HKaren F eta G maila), dokumentatuta ere badagoena.
- Halaber, laneko lan-kontratu guztiak sinatzen ditu.

Aipatutako dokumentuek eta erabakiek arautzen dituzte enpresaren lan-kontratu guztiak; hala, kudeaketako zuzendaritzak sinatu eta berriaz onetsi egin ditu dokumentu eta erabaki horiek.

Jakina, garrantzi gutxiagoko beste alderdi batzuk existitzen dira langileen kudeaketa-politikaren barruan (lanpostu lekualdaketak; langileen ebaluazioa; diziplina-espedienteak irekitzea), kudeaketako zuzendaritzak zuzenean sinatzen ez dituenak; izan ere, enpresaren beste organo batzuek burutzen dituzte horrelako jarduketak. Hala eta guztiz ere, hori horrela izanda, langileekin lotutako izapide guztiak kudeaketako zuzendaritzak benetan egikaritzen eta dokumentatzen ez dituen arren, ezin dugu Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren baieztapenarekin bat egin, hau da, langileen kudeaketari dagozkion konstantzia



dokumentalik ez dagoela. Izan ere, dokumentu eta erabakirik garrantzitsuenen konstantzia dokumentala badago, baina, jakina, ez da langileen kudeaketarekin lotutako egintza guztietara hedatzen konstantzia hori, batzuetan dagokion zuzendaritzari edo unitateari eskatzen zaiona.

Era berean, ezin gara Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren beste baieztapen batekin bat etorri; hain zuzen ere, horrek adierazi du zuzendari kudeatzaileak langileen kudeaketa ororen konstantzia dokumentala jaso behar duela. Aurreko puntuetan azaldu den bezala, langileei dagokienez, MBri ezin zaizkio aplikatu administrazio-prozeduran ezarritako formalitateak eta eskakizunak. MBk, langileen kudeaketarekin lotutako banakako egintzei edo izapidetze-egintzei dagokienez, modu deszentralizatuan jardun dezake eta, edonola ere, instantzia eskudunei jakinaraziko die, besteak beste, kudeaketako zuzendaritzari. Kasu horietan, ez da beharrezkoa kudeaketa guztiaren egintza edo onespen formalik igortzea.

III.2.2 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Esleipenaren jakinarazpenean lizitatzailerak erreklamazioak jartzeko aukera duten zehaztu ez izanaren inguruko gogoetaren aurrean (uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen 101. artikulua eta hurrengoak eta 39/2015 Legearen 40.2 artikulua)

ALEGAZIOA

Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen 101. artikuluan eta hurrengoetan soilik arautzen da interesdunek kontratazio-organoaren erabakien aurrean jar dezaketen erreklamazioa, ez kontratazio-organoak erreklama daitezkeen erabakiak jakinaraztean bete behar dituen betekizunak eta formalitateak. Aitzitik, jakinarazpen horiek badaude araututa uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen 84. eta 85. artikuluetan; horietan, ez da ezartzen beharrezkoa denik jakinarazpen bakoitzean berariaz adieraztea erabakiaren aurrean errekurtsio bat aurkez daitekeela.

Ezin da balioduntzat jo 39/2015 Legearen 40.2 artikulua aipamena; izan ere, 39/2015 Legea administrazioei, entitateei eta erakunde autonomoei aplikatzen zaie eta merkataritza-sozietate publikoek eta zuzenbide pribatuko bestelako erakundeek soilik bete behar dute mota horretako erakundeak bereziki aipatzen diren manuetan [39/2015 Legearen 2.2 b) artikulua]. Horri dagokionez, adierazi behar da 39/2015 Legearen 40.2 artikulua ez dituela zuzenbide pribatuko erakunde edo sozietate horiek aipatzen. Hortaz, aurretik aipatutako 2.2 b) artikulua aplikatuz, ezin da jo 40.2 artikuluan jasotako eskakizunak MB bezalako merkataritza-sozietate bati eskatu ahal zaizkionik.

Gogorarazi behar da MB merkataritza-sozietate bat dela eta zuzenbide pribatua aplikatzen duela, arau batek arau espezifikoak betetzeko berariaz eskatzen dion kasuetan izan ezik. Kasu honetan, arau hori ez da existitzen eta ikusi da 39/2015 Legeak ez diola aztertutako



alderdi horretan eragiten; beraz, MB ez dago behartuta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak antzemandako formalitate hori betetzera.

Gauzak horrela, horrek ez du inola ere esan nahi MBk aipatutako informazioa ematea saihestuko duenik edo kontratazioaren inguruan hartzen dituen erabakiak erreklamatzeko aukera ezkutatuko duenik. Kontratazioaren inguruko erreklamazioak aurkezteko aukera MBren kontratazioaren dokumentu gidarian adierazten da eta hori kontratatzailearen profilean dago argitaratuta: kontratazio-jarraibideak. Publiko orokorrak eskura dezake dokumentu hori eta lizitatzailerok ezagutu behar du dokumentu hori edozein eskaintza aurkeztu aurretik; dokumentu horretan berariaz iragartzen da kontratazioaren inguruan erreklamazioak jartzeko aukera eta zeintzuk diren kasu bakoitzean jar daitezkeen erreklamazioak.

Kontratu-dokumentazioan balio zenbatetsia jasotzearen aurrean

ALEGAZIOA

Kontratuaren dokumentazioan ez da agertzen lizitazio-prozedura ezartzeko atalaseak zehazten dituen balio zenbatetsia.

Arau orokor gisa, datu hori kontratazio-espeditenteen “espeditentearen hasierako” aktan adierazten da. Eskatzen duen edozein lizitatzailerok eskura ditzake informazioa eta akta.

Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legeak ezarritakoa baino zenbateko txikiagoko espeditenteetan Protrans erabiltzearen inguruko gogoetaren aurrean.

ALEGAZIOA

Nabarmendu behar da aipatutako 191. artikulua kontratatzailearen profilean argitaratzearen publizitate-baliabide alternatiboak arbitratzeko aukera ezartzen duela, betiere baliabide alternatibo hori kontratazio-jarraibideetan araututa badago. Zentzu horretan, MBren kontratazio-jarraibideetan, beren-beregi arautzen da uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen atalaseen azpitik dauden kontratuentzako deialdien publizitate-baliabide gisa berezko sailkapen-sistema baten existentzia (Protrans). Hala, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legeak publizitate-sistema hori onartzen du zenbateko handiagoko kontratuentzat.

Pleguan aurreikusitako aldatetek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 106. artikulua eskatutako zehaztasun- eta argitasun-betekizunak betetzen ez dituztenaren inguruko gogoetaren aurrean



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Aipatutako klausulak kontratuetan dauden klausulak dira eta horiek dira inoiz egikaritu. Hortaz, ezabatuko dira.

Lizitazio-mota berdintzen duten eskaintzei puntuak eman ahal dizkieten formulak erabiltzearen inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Horren inguruan, adierazi behar da egia dela MBk puntu guztiak banatzen ez dituzten formulak baliatzen dituela, edonola ere bermatzen baitute puntuaziorik altuena ematea preziorik onena duen eskaintzari. Hala, puntuazio hori abiapuntutzat hartuta, puntuak proportzionalki banatzen dituzte gainerako eskaintzen artean. MBk erabiltzen duen formularen xedea da ekonomikoki onuragarriena den eskaintza antzematea; horrela, ez zaie puntuazio-alde nabarmenik ematen ekonomikoki garrantzirik ez duen aldaketa erlatiboa duten eskaintza ekonomikoei. Hala, lizitazio gehieneko aurrekontua 1.000.000 eurokoa den kontratu batean, onargarria al da oso puntuazio desberdinak ematea ekonomikoki 5.000 euroko aldea duten eskaintzei? Argi dago ezetz. Mota horretako formulak proportzionalak dira eta puntu guztiak banatzen dituzte proportzionalki, eskaintzarik onenari puntuazio osoa bermatuz eta zero puntu emanez lizitazio-mota berdintzen duenari; hala, formula horien emaitzak irrazionalak izan daitezke “eskaintzarik onuragarrienaren” ikuspuntutik. Izan ere, antzeko eskaintza ekonomikoei puntuazio-alde gaindiezinak ematen dizkiete eta kontratazio-organoa behartzen dute kontratua teknikoki hala-nolako eskaintzei esleitzera; hain zuzen ere, eskaintza horiek aurrezki hutsala aurkezten zuten teknikoki paregabea zen beste eskaintza baten aurrean. Mota horretako formulekin, banaketa oso eta proportzionalarekin, prezioaren gehiegizko haztapena egiten da eskaintza teknikoaren gainean eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleitzea eragozten dute.

Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak MBk erabiltzen duen formula aztertu egin du jadanik, zehazki, 2017ko otsailaren 24ko ebazpenean. Kasu honetan, administrazio auzitegiak MBk erabiltzen duenaren formula berdintsua baliozkotu zuen; izan ere, soilik zuzendu zuen baja ausartegiaren ezarpena, hain zuzen, lizitazio-prezioaren % 10ean, jotzen zuelako puntuak banatzeko urkila estuegia zela (4 puntu besterik ez baja ausartegizat hartutako eskaintzaren eta lizitazio-aurrekontuaren artean):

“La fórmula elegida por el órgano de contratación establece un criterio proporcional que permite la atribución de 40 puntos a la oferta que presentó el precio más bajo y al resto de propuestas los puntos se asignarán de forma inversamente proporcional a la oferta más baja. Esta fórmula constituye un criterio elegido por el órgano de contratación y expresado en los pliegos -150.2 del TRLCSP-, tiene relación con una de los principales elementos del contrato como es el precio que percibirá el contratista -150.1 del TRLCSP- y permite favorecer en la puntuación a las propuestas más económicas, frente a las que realizan una propuesta con un precio más elevado -150.1 del TRLCSP-. No obstante la fórmula, teniendo



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

en cuenta el límite del 10% del precio base de licitación establecido para considerar desproporcionada elegida, no permite discriminar de manera proporcional las propuestas económicas de los licitadores. Sirva como ejemplo, considerando como propuesta de una licitadora el presupuesto base de licitación –expresado con carácter anual- de 1.359.073,57 euros. Este licitador, que ha propuesto rebaja alguna en su oferta económica, recibiría 36 puntos si la mejor oferta fuera 1.223.166,213 euros, que representa en cambio una rebaja del 10% del presupuesto de licitación y simultáneamente el límite que el órgano de contratación ha configurado para considerar la oferta anormal o desproporcionada, oferta que obtendría de acuerdo con la fórmula discutida 40 puntos, es decir tan sólo 4 puntos de diferencia respecto de la que no ha ofrecido rebaja alguna.

La diferencia de cuatro puntos sobre un total a distribuir de cuarenta entre la propuesta que coincida con el presupuesto de licitación y la que el órgano de contratación califica de desproporcional nos lleva a concluir que la fórmula elegida por el órgano de contratación no permite discriminar adecuadamente las propuestas económicas de los licitadores en consideración al elevado número de puntos que se atribuye al criterio de adjudicación siempre y cuando se mantenga como límite de para la desproporción el 10% del presupuesto base de licitación.”

MBren kasuan, Administrazio Auzitegi Nagusiak babesten duen formula berbera erabiltzen da, baina ez da organo horrek irregulartzat jotzen duen hori egiten; izan ere, lizitazio-prezioaren baja ausartegiaren % 10ean beharrez, baja ausartegia bajaren % 25ean ezarri da lizitazio-prezioari dagokionez. Horrela, urkila askoz zabalagoa da eta puntuazio-alde nabarmena egon daiteke lizitazio-mota berdintzen duen eskaintzaren eta baja ausartegia berdintzen duen eskaintzaren artean.

Horrenbestez, MBren formulak:

- Puntuaziorik altuena eskaintzarik merkeenari ematea bermatzen du eta soilik horri ematea puntuazio hori
- Puntuak proportzionalki banatzen ditu eskaintza guztien artean
- Puntuazio-alde nabarmena bermatzen du baja ausartegitik hurbil dagoen eskaintzaren eta lizitazio-mota berdintzen duen eskaintzaren artean

Halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak espediente bakar batean erabilitako formula bat aipatzen du (bidea mantentzeko lana); hala, bere txostenaren arabera, horrek ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea eragozten du. Horri dagokionez, soilik adierazi behar da MBk jadanik ez duela formula hori erabiltzen lizitazio batean ere ez.

Baldintzen plegurik eta balorazio ekonomikoko formularik jaso ez izanaren inguruko gogoetaren aurrean



ALEGAZIOA

Prozedura negoziatuaren bidez esleitutako 5 espedientetan, ez dira baldintzen pleguak jaso (2, 5, 9, 10. eta 11. espedienteak).

Kasu guztietan dira esleipendun bakarra egon daitekeen prozedura negoziatuak, bai menpekotasun teknologikoagatik, bai lizentzia industrialen edo patenteen eskubideengatik eta kasu guztietan daude justifikatuta txosten baten bidez edo hori eusten duen dokumentazio teknikoaren bidez. Bai edukia, produktuen edo emango diren zerbitzuen zerrrenda, bai horien baldintzak, esleipendunarekin negoziatzen dira prozesu bakoitzean eta espedientearekin eta kontratuarekin lotutako azken eskaintzan islatzen dira.

Esleitutako 3 espedientetan, pleguetan ez da jaso balorazio ekonomikoa egiteko formula (12, 14. eta 16. espedienteak).

ALEGAZIOA

Akats bat egon zen eta ez zen pleguetan berariaz adierazi; hala ere, MBk egindako gainerako lizitazio guztietan erabilitako formula berbera baliatu zen.

Fidantza eratzearen inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Fidantza eratzeko onartutako moduen artean, fakturan atxikitzearena dago, MBren administrazio-plegu orokorretan arautzen den bezala. Hortaz, kontratua sinatu aurretik eratzten ez den kasu guztietan, besterik adierazi ezean, aukera hori aplikatzen dugu eta, kasu horietan, fidantza kontratua hasten den dataren ostean eratzten da beti.

Espediente batzuk Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu ez izanaren inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Egia da espediente horiek ez direla argitaratu, esleipendun bakarra zegoen publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak direlako, bai menpekotasun teknologikoagatik, bai lizentzia industrialen edo patenteen eskubideengatik.

Espediente baten zerga-betebeharrak eta betebeharrak sozialak betetzearen eta luzapen-baldintzen txostenaren inguruko gogoetaren aurrean



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Luzapena kontratuaren baldintza berberetan egin zen eta zerga-betebeharren eta betebehar sozialen egiaztapenak egin ziren, MBk horretarako kontratatutako aplikazio informatiko baten bidez; aplikazio horretan, betebehar horiek betetzen ote diren egiazta daiteke denbora errealean (kontsultaren egunaren datan). Kontratuaren espedientean, ez zen gorde horien kopia fisikorik; hortaz, espedientean kontsultatu zenean, ezin izan zen luzapena onetsi zen unean egin zenaren federik eman.

Espediente baten egikaritzapen-epaia aldatzearen inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Espedientean zuzendari teknikoak 2015-11-19an sinatutako eta Zuzendaritza Batzordean 2015-11-23an onetsitako txosten bat jaso da, dagokion aktan agerrarazi den bezala.

Isilbidezko luzapenen existentziari eta espedientean luzapena onetsi ez izanari buruzko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Isilbidezko luzapenei dagokienez, adierazi behar da, prozedura arintzen eta azkartzen zuen sistema bat izan arren, MBk kontratuak luzatzeko sistema aldatuko duela urte honetan eta berariazko luzapenak soilik aurreikusten dituen beste bat ezarriko duela.

Espedientean luzapenen onespenerik ez agertzeari dagokionez, adierazi behar da espedientearen dokumentazioa artxibatzean edo zaintzean intzidentziaren bat egoteagatik ez direla agertzen; izan ere, onespenerik edonola ere egiten dira eta horien ebidentzia espedientean geratzen da.

Publizitate estatikoko jatorrizko kontratua euskarri eta kanon berriak ezarri aldatzearen inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Formatu digitaleko publizitatea eta binilorako euskarriak ez ziren indarreko kontratuaren xedea eta, horregatik, ez zeuden inolako kanonen menpe. Biak, hau da, publizitate digitala eta binilorako euskarriak gehitu ziren euskarri berri gisa eta horientzako kanon bat sortu zen *ex novo*; hala, euskarri bakoitzaren tratamendua desberdina da:

- Euskarri digitalak instalatzeko, esleipendunak egiten du inbertsioaren % 100; beraz, kanon hori ezarri zen egindako inbertsioaren itzulkin zentzuduna ahalbidetzeko. Bestalde, kanon hori ezarri aurretik, beste trenbide-ustiaketa batzuetan aplikatutako



kanona aztertu egin zen eta egiaztatu zen MBn aplikatuko zen kanona merkatu-parametroetara egokitzen zela.

- Binilorako euskarriei dagokionez, kasu honetan, euskarriak Metro Bilbaorenak dira; hortaz, esleipendunak ez du inbertsiorik egin. Mota honetako euskarrietarako ezarritako kanona bat dator beste trenbide-ustiaketa batzuetan ezarritakoarekin; hala, MBk inguruabar hori egiaztatu egin du kanona ezarri aurretik.

Euskarri berrien gaineko kanonak berriaz onetsi ez izanari dagokionez, adierazi behar da berriazko onespren hori jaso egin dela espedientean. 2013ko azaroaren 26an, 2006ko urtarrilaren 2ko jatorrizko kontratuaren eranskina sinatu zen; hala, MBren zein esleipendunaren ordezkariak sinatu zuten eranskin hori eta bertan agertzen dira ustiatuko diren euskarri berriak eta horien gainean aplikatu beharreko kanonak.

Fluxu ekonomikoen; lizitazio-prezioaren; publizitate-espazioen ustiakuntza-kontratuaren esleipen-irizpideen eta esleipendunaren fakturazioaren gaineko auditoretza egitearen justifikazioaren inguruko gogoetaren aurrean

ALEGAZIOA

Fluxu ekonomikoen justifikazioari dagokionez, adierazi beharra dago esleipendunak MBri bidaltzen dizkiola fakturazio-datuak. Datu horiek zuzenean iraultzen dira esleipendunaren salmenten eta fakturazioaren aplikaziotik; hala, urtero egiten da aplikazio horren auditoretza.

Publizitate-espazioen ustiakuntzaren hasieratik, ez da iragarleen erreklamaziorik jaso esleipendunaren *praxis* okerraren inguruan, kanpaina bat ez erakustearen edo kanpaina erabakitakoen bestelako baldintzetan erakustearen eremuan, hain zuzen.

Hiru hilean behin, salmenten eta kontratazioen bilakaeraren datu globalak bidaltzen dira, euskarri motaren eta iragarlearen arabera sailkatuta. Eta, urtean hirutan gutxienez, zuzeneko bilerak egiten dira MBren euskarriak merkaturatzen dituen esleipendunaren talde komertzialarekin.

Pleguan ezarritako lizitazio-prezioari dagokionez, hau da, % 60ko gutxieneko kanona beste trenbide-ustiaketa batzuen merkatu-urkilaren barruan dago. Jakina, MBk egiaztapen hori egin zuen pleguan aurrekontua ezarri aurretik.

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak okertzat jotzen dituen zenbait inguruabar aipatzen dira:

- Kaudimenekoak izan behar diren esleipen-irizpideak erabiltzen dira
- Ez da aurretik ezarritako prezioa berrikusteko sistemarik aurreikusten
- Fidantza baxua ezartzen da kontratuaren bolumenarekin alderatuta



**Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia**

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horri dagokionez, adierazi behar da aipatutako irregulartasun guztien abiapuntua dela premisa oker bat: kontratuari uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legea edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina aplikatzea. Prezioen berrikuspena, esleipen-irizpideak edo fidantza, besteak beste, aipatutako arauak arautzen dituzten kontzeptuak dira. Horri dagokionez, esan beharra dago arau horiek obra-, zerbitzu edo hornikuntza-kontratuei edo kontratu mistoei aplikatzen zaizkiela eta aztertutako kontratua ez da aipatutako kontratu figura horietako batean ere sartzen. Horren ondorioz, aipatutako kontratua arau horietatik kanpo geratu zen eta, hortaz, horietan araututako manuetatik kanpo ere bai.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak urratutzat jo duen araudia kontratu honi ez aplikatzearen auzia ezarrita geratu da Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoak espediente honetan bertan 2016ko uztailaren 22an emandako ebazpenean.

MBk fakturazioari eta jarduerari buruzko kanpo-auditoretza bat egiteko duen ahalmenari dagokionez, berretsi nahi dugu egia dela aukera hori gauza litekeela MBk nahiko balu; orain arte, ez da aukera hori gauzatu, baina indarreko kontratuan zehar egikaritu liteke.



ABREVIATURAS

BEI	Banco Europeo de Inversiones.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CTB	Consortio de Transportes de Bizkaia.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
ET-FV	Eusko Trenbideak /Ferrocarriles Vascos, S.A.
ETS	Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea.
FMB	Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.
GOVA	Gobierno Vasco.
LCAETSP	Ley 31/2007, de Procedimientos de Contratación en los sectores del agua, energía, transportes y servicios postales.
MBSA	Metro Bilbao, S.A.
PROTRANS	Sistema de clasificación de operadores económicos, al amparo de lo previsto en la Ley 31/2007, sobre Procedimientos de contratación en los sectores del agua, energía, transportes y servicios postales.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





I. INTRODUCCIÓN

El TVCP/HKEE de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el programa de trabajo, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Consorcio de Transportes de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2016.

La anterior fiscalización de la Cuenta General del CTB, realizada por el TVCP/HKEE, corresponde a los ejercicios 2009 y 2010.

La Cuenta General del CTB está integrada por las cuentas de la entidad local CTB, por las cuentas anuales de la sociedad anónima Metro Bilbao, SA, aprobadas por la Junta General de la sociedad, cuyo único accionista es el CTB y por las cuentas anuales consolidadas.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Para la revisión de las áreas contables más significativas de las cuentas del CTB, una empresa de auditoría externa ha realizado un informe de procedimientos acordados y las cuentas anuales de la sociedad pública MBSA han sido objeto de una auditoría financiera realizada por la misma empresa.
- Análisis financiero de la situación al cierre del ejercicio 2016 y del Plan Financiero para dar cumplimiento a las futuras inversiones.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión”.

El CTB se crea por la Ley 44/1975, de 30 de diciembre, como ente local con personalidad jurídica propia e independiente de los entes consorciados. La participación de estos entes a 31 de diciembre de 2016 es: Gobierno Vasco (50%), Diputación Foral de Bizkaia (25%) y Ayuntamientos afectados que son: Barakaldo, Basauri, Bilbao, Erandio, Etxebarri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao (25%).

Su objeto social es: “participar en la financiación de las obras de infraestructura del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, recibéndolas una vez ejecutadas y llevar a cabo los correspondientes proyectos y obras de superestructura y equipamiento general de aquél, conforme a lo establecido en la Ley 44/1975” y “gestionar el servicio público de transporte a prestar por dicho ferrocarril, por el sistema de gestión directa mediante constitución de sociedad privada con capital del Consorcio, Metro Bilbao, SA, según lo dispuesto en el artículo quinto de dicha Ley.

Desde 1986 la financiación del CTB se realiza entre el GOVA y la DFB, al 50% cada uno, asumiendo esta última la financiación de los ayuntamientos consorciados.



La sociedad MBSA se constituyó el 18 de febrero de 1993 y tiene como actividad principal la gestión del FMB, cuya línea 1 se inauguró el 11 de noviembre de 1995. A 31 de diciembre de 2016, están en funcionamiento la línea 1 (Basauri-Plentzia) y la línea 2 (Basauri-Kabiezes).

Durante 2015, el Ente público de derecho privado ETS, adscrito al Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del GOVA, y creado expresamente por la Ley 6/2004, se encargó de la ejecución, el seguimiento y el control de los proyectos y obras de las líneas 1 y 2 del FMB, a través de una encomienda de dicho departamento por importe de 605.000 euros.

Con la entrada en funcionamiento de la línea 3 de Metro el 8 de abril de 2017, construida por ETS y financiada directamente por GV y DFB al 50%, el servicio del FMB pasará a estar prestado por MBSA para las Líneas 1 y 2, y por ET-FV, sociedad pública de titularidad del GOVA, para la línea 3; si bien tendrá un comportamiento de servicio único para los usuarios. La competencia para la integración de cualquier título o uso adicional de la tarjeta Barik es exclusiva del CTB. El Consejo General del CTB de 19 de abril de 2016, aprobó el Convenio Regulador entre el CTB, MBSA y ET-FV, firmado el 26 de abril de 2016, para la definición de actuaciones a desarrollar entre ellos. En el citado convenio no se establece el importe de las obligaciones y compromisos económicos que asumirá el CTB, ni su distribución temporal o imputación concreta al presupuesto y las actuaciones que vayan a realizarse, una vez concretadas y definidas, se irán aprobando y contratando por el Órgano de Contratación correspondiente del CTB.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

Gastos de Personal

1. Las retribuciones del personal se han incrementado un 2% de media respecto a 2015, superando el 1% establecido en el artículo 19 de la Ley General de Presupuestos para 2016.

SOCIEDAD PÚBLICA METRO BILBAO, S.A.

Gastos de Personal

2. En 58 contrataciones realizadas en 2016 (1 indefinido, 38 interinos, 7 temporales y 12 contratos de relevo), MBSA contrata con una empresa especializada la publicidad y el desarrollo de las pruebas a realizar y recibe una lista final de candidatos. Con posterioridad, MBSA realiza procesos de formación y entrevistas personales, resultando una lista definitiva, pero sin otorgar valoraciones individuales a cada uno de ellos. Por lo tanto, no queda garantizada la aplicación de los principios de igualdad, mérito y capacidad en la contratación de personal.
3. En 2016, MBSA ha transformado los contratos laborales temporales de 15 trabajadores en indefinidos, mediante el procedimiento de promoción interna contemplado en el convenio colectivo de MBSA, incumpliendo por tanto los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad que rigen el acceso al empleo público.

Contratación de bienes y servicios (ver A.14. 6)

4. En 2 expedientes de servicios, adjudicados por 1,4 millones de euros (expedientes 12 y 13), se ha excedido el plazo máximo de ejecución establecido en los pliegos. El gasto registrado en el ejercicio 2016 sin contrato, hasta la nueva adjudicación asciende a 883.717 euros. Asimismo, el contrato de mantenimiento preventivo y correctivo de puertas y compuertas de estaciones finalizó el 2 de mayo de 2015 y el gasto registrado en 2016 sin contrato, asciende a 95.276 euros.
